

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua  
Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa**

**Ente Público de Derecho Privado  
Osakidetza-Servicio Vasco de Salud**

**2015**





## AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK .....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 OSAKIDETZA.....	8
II.1.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.1.2 Urteko kontuei buruzko iritzia .....	8
II.2 OSATEK, SA.....	9
II.2.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	9
II.2.2 Urteko kontuei buruzko iritzia .....	9
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	10
III.1 OSAKIDETZA.....	10
III.1.1 Langileria-gastuak .....	10
III.1.2 Kontratazioa .....	12
III.1.3 Beste batzuk .....	12
III.2 OSATEK, SA.....	12
III.2.1 Langileria-gastuak .....	14
III.2.2 Kontratazioa .....	14
III.2.3 Beste batzuk .....	14
IV. URTEKO KONTUAK.....	15
IV.1 OSAKIDETZA.....	15
IV.2 OSATEK, SA.....	21
ALEGAZIOAK .....	27
ABREVIATURAS .....	53
I. INTRODUCCIÓN.....	55
II. OPINIÓN.....	56
II.1 OSAKIDETZA.....	56
II.1.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	56
II.1.2 Opinión sobre las cuentas anuales .....	56
II.2 OSATEK, S.A.....	57
II.2.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	57
II.2.2 Opinión sobre las cuentas anuales .....	57



<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>	<b>58</b>
III.1 OSAKIDETZA.....	58
III.1.1 Gastos de personal.....	58
III.1.2 Contratación .....	58
III.1.3 Otros .....	60
III.2 OSATEK, S.A.....	60
III.2.1 Gastos de personal.....	60
III.2.2 Contratación.....	62
III.2.3 Otros .....	62
<b>IV. CUENTAS ANUALES .....</b>	<b>63</b>
IV.1 OSAKIDETZA.....	63
IV.2 OSATEK, S.A.....	69
<b>ANEXOS .....</b>	<b>75</b>
A.1 Naturaleza y normativa aplicable.....	75
A.2 Provisiones y contingencias de personal.....	77
A.3 Gastos de personal .....	79
A.4 Contratación e Inversiones.....	81
A.5 Osatek, S.A.....	84
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>89</b>

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 29a

Vitoria-Gasteiz, a 29 de junio de 2017



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURDURAK

BABA	Baldintza Administratibo Berezien Agiria.
E.A.	Esparru Akordioa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAETB	1/2011 Legegintza Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruz indarrean dauden lege xedapenen bateratutako testua onartzen duena.
EASL	8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa.
EEP	Enpleguaren Eskaintza Publikoa.
EGPS	Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte-politiken Saila.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
EM	Erresonantzia Magnetikoa.
KEB	Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
TGEEZ	Transfusio eta Giza-ehunen Euskal Zentroa.
TVCP/HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
ZEI	Zerbitzu Erakunde Integratua.





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), bera arautzen duen 1/1988 Legean eta Lanerako Urteko Programan ezarritakoari jarraiki, Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren (aurrerantzean, Osakidetza) urteko kontuen fiskalizazio txostena mamitu du, 2015eko ekitaldiari buruzkoa.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: aplikagarria den arautegia honako alor hauetan betetzen dela egiaztatzea: aurrekontua, zorpetzea, finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak, diru-laguntzak eta laguntza publikoak ematea eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak.
- Kontularitzakoak: Kontuak aplikagarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratutako hutsak “Kudeaketaren alderdiak eta Gomendioak” idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

Berebat, Osatek, SA ere fiskalizatu dugu, Osakidetza kapital sozialaren % 100eko jabetza duen sozietate publikoa.

Gainera, kanpo enpresek egindako Osakidetza eta Osatek, SAren urteko kontuen eta aurrekontua eta legea betetzen dutelako auditoria txostenak euskarritzen dituzten lan paperak ere aztertu ditugu. Berebat, aplikagarria den legezko araudia bete izanari buruz Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako txostenak ere aztertu ditugu.

Fiskalizazio lana sektore publikoari ezargarriak zaizkion auditoriako printzipio eta arauen arabera gauzatu da eta kasu bakoitzean beharrezko iritzitako hautazko probak, prozeduren azterketa eta auditorian ohiko diren gainerako teknikak baliatu dira txostenean jasotako iritzia euskarritzeko.

Osakidetza osasun gaietan eskumena duen EAEko Administrazio Orokorreko Sailari atxikia dago; berezko lege-nortasuna du eta jarduteko gaitasun osoa du osasun zerbitzuak emateko, bere baitako diren zerbitzu erakunde publikoen bitartez, berezko lege-nortasunik ez duten arren, kudeaketarako autonomia dutenak.

2015eko abenduaren 31n Erakunde Zentralaz gain, 21 zerbitzu antolamendu daude: 4 ospitale, 11 zerbitzu erakunde integratu “ZEI”, oinarritzko osasun-laguntzako 1 eskualde, 3 osasun mentaleko zentro, Larrialdiak eta Transfusio eta Giza-ehunen Euskal Zentroa.



## II. IRITZIA

### II.1 OSAKIDETZA

#### II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

##### Kontratazioa

1. Osakidetzako zerbitzu erakundeek kontratu txiki modura izapidetu dituzte produktu edo ondasun higigarrien erosketak, zeinetan kontratazioaren xedea zatikatu den; horrek publikotasun eta lehia printzipioa urratzen du (SPKLTBren 86. art.), Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol txostenetatik eratorzen den moduan, ezargarria den legediari kontratu mota hau egokitzeari dagokionez. Sendagaien horniketari dagokionez, akats hau azaleratu da guztira aztertu diren 22,4 milioi euroetatik 10,3 milioi euroren erosketetan, hau da, % 46tan; eta gainerako hornigaietatik produktu homogeneoen erosketetan, aztertutako 80,8 milioi euroetatik 65,5 milioi euroren erosketetan, hau da, horien % 81,1ean (Ikus A.4).
2. Zerbitzu nagusiek zenbait zentrotarako 64 ebaketako bi TAC aparatu hornitzeko espedientea izapidetu eta 1 milioi euroan esleitu dute; ez da, baina, presakotasunezko izapidea justifikatzen publikotasunik gabeko prozedura negoziatuaren euskarri modura, izan ere, publikotasun eta lehia askea salbuesten ditu eta hori erabiltzeko suposizioek interpretazio murrizgarria dute, kontratazio publikoaren oinarriko printzipioak saihesten dituelako (SPKLTBren 170 e) art.) (61 espedientea).

Epaitegi honen ustetan, 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, Osakidetzak zuzentasunez bete du 2015eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

#### II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Egoeraren balantzeak ez ditu barne hartzen Insaludetik datorren langileria estatutario sanitario ez fakultatiboaren erretiro osagarriak, ez Tuberkulosiaren kontrako Patronatuaren langileria funtzionarioarenak, ez eta 1994ko abenduaren 31 baino lehenago erretiratu zen Basurtoko Ospitaleko hainbat langilerena ere. Obligazio hauek erregistratzeko Osakidetzak kutxa irizpidea darabil nagusiki eta 2015ean gastu modura ekitaldian ordaindutako 6,9 milioi euroak jaso ditu.

Ezargarria den finantza informazioko arau-esparruari jarraiki, pentsio osagarriek eta antzeko beste batzuek sortutako pasiboak azterketa aktuariaren bitartez zenbatetsi behar dira eta sortzaren printzipioaren arabera erregistratu. Osakidetzak aditu independenteek egindako azterketa aktuariala du; azterketa honek bere pasibo aktuarialak 98,8 milioi euroan kuantifikatu ditu 2015eko abenduaren 31n; Osakidetzak, ordea, ez du dagokion zuzkidura erregistratu (Ikus A.2).

2. Osakidetzak ebazteko ditu garbiketa zerbitzuaren emakidadun diren enpresetako langileen demanda kolektiboak, 2008tik 2010era bitarteko ekitaldietako lanbide-karreren kontzeptuko ordainsariei dagokienez. 2015ean Osakidetzako garbiketa





zerbitzuaren emakidadun diren enpresen hitzarmen kolektiboa izenpetu da 2011tik 2017ra bitarteko urteetarako eta bertan lanbide-karreragatik egiten diren erreklamazioak zein modutara bideratuko diren zehazten da. Kolektibo honi ordaindu beharreko konpromisoen balioespena 6,3 milioi eurorena da 2015eko abenduaren 31n; horri aurre egiteko ez da inongo hornidurarik zuzkitu.

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Osakidetzaren urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2015eko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2015eko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

## **II.2 OSATEK, SA**

### **II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

Epaitegi honen ustetan, Osatek, SAK zuzentasunez bete du 2015eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

### **II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA**

Epaitegi honen iritzira, Osateken urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2015eko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2015eko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honek besarkatzen ditu bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

#### III.1 OSAKIDETZA

##### III.1.1 LANGILERIA GASTUAK

2015ean indarrean dauden 22 zerbitzu erakunde integratuen egiturazko plantilla 25.799 lanpostuk osatzen dute. KEBek 8 erakundetako 11.874 lanpostuetako 532 langile finko eta bitartekoen ordainsariak, % 4,5 egiten duena, eta behin-behineko langile estatutarioen 47 espediente aztertu ditu. Hona hemen azaleratu diren ez-betetzeak:

- 50 langile finko edo bitartekoren eta behin-behineko 8 langileren izendapenean baliatutako prozedura ez dago agiri bidez dokumentatua.
- Gainditu egin da 13 espedientetan zerbitzu eginkizunetarako finkatutako 2 urteko epemuga eta 35 espedientetan maila jasoagoko egitekoetarako finkatutako urtebeteko muga.
- Behin-behineko langileen 8 izendapenetan edo horien luzapenetan ez dira identifikatu egin beharreko zerbitzuak eta horien izaera eta ez dago justifikatuta Osasun Zerbitzuetako langile estatutarioen Esparru Estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 9.3 artikuluan eta LOSEren 26.5 artikuluan jasotako suposizioei dagozkienik.
- Aldi baterako osagarriei dagozkien arautegi berariazkoak badiren arren, hala nola, mediku zaintzak, maila jasoagoko egitekoak, txandak, gaueko txandak, jaiegunak eta kokalekua, autokontzertazioa eta abar, oro har, arauak hausten jarraitzen da, egiaz gauzatutako zerbitzuen egiaztatzea egiten ez delako eta zerbitzu horiek ez dituelako organo eskudunak onartzen.

##### III.1.2 KONTRATAZIOA

2015ean gauzatutako kontratazioko 70 espedienteren lagina aztertu dugu, 212,2 milioi eurorena, eta lehenagoko ekitaldietan gauzatutako 33 espedienterena, urte horretan aldatu, luzatu edo egikaritu direnak, 174 milioi euroren zenbateko metatua egin zutenak 2015eko abenduaren 31n. Aztertutako espedienteen zerrenda A.4 atalean xehatua dago.

- Guztira 45,7 milioi euroan esleitutako 14 espedientetan -11 hornidurakoak eta 3 zerbitzuetakoak- esleipen irizpideen garapena ez da behar hainbatekoa ez Karatulan, ez Pleguetan ere (SPKLTBren 150. artikulua) (60, 65, 70, 77, 78, 79, 80, 81, 83, 84, 85, 88, 91, 99 espedienteak).
- Guztira 18,6 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 14 espedientetan -7 hornidurakoak, 6 zerbitzuetakoak eta 1 mistoa- prezioaren irizpidea, 40 eta 50 puntu bitartean



balioztagarria dena, eskaintza tipoari puntuak bermatzen dizkion formula batez puntuatzen da eta horrek desitxuratu egiten du irizpide hau eta eragina du balio judizio bidezko irizpide bidez balioztatu beharreko ehunekoaren proportzioan (SPKLTBren 150. artikulua) (59, 62, 65, 66, 67, 68, 70, 86, 89, 91, 93, 99, 100, 103 espedienteak).

Berebat, 1,8 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 2 hornidura espedientetan formulek zigortu egiten dituzte onuragarriagoak diren prezio irizpidearen eskaintzak, % 25eko gehienezkotik aurrera ez baitute balioztatzen eta honenbestez, irizpide hori desitxuratua dago (73, 76 espedienteak).

- Hornidurako 10 espedientetan, 9,2 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoetan, balio judizioetara meneratutako irizpideen balorazio txostena ez da arrazoitzen (SPKLTBren 150 eta 151.4 artikulua) (67, 68, 72, 73, 74, 75, 76, 83, 84, 86 zk. espedienteak).
- Guztira 12,7 milioi euroan esleitutako hornidurako 11 espedientetan eta zerbitzuetako leian pleguek ez dute zehazten zein elementu edo baldintzen gainean aurkez daitezkeen aldaerak edo hobekuntzak (SPKLTBren 147 artikulua) (70, 77, 78, 79, 80, 81, 82, 83, 84, 85, 87, 96 espedienteak).
- Aleko prezioetan eta gehieneko 31,3 milioi euroren aurrekontuarekin esleitutako 18 espedienteren lizitazioa esparru-akordio modura izapidetu behar zatekeen (SPKLTBren 9.3 eta 196-198 artikulua) (37, 52, 59, 67, 68, 69, 72, 73, 74, 75, 76, 77, 78, 80, 84, 85, 86, 87 espedienteak).
- Guztira 25,8 milioi euroan esleitutako 14 espedientetan, hornidurako 10 eta zerbitzuko 4tan, aurreikusitako aldaketek ez dituzte SPKLTBren 106 artikuluko betekizunak betetzen, muga kuantitatiboarena izan ezik, hau da, modu argi, zehatz, zalantzarik gabe aurreikusgarriak, zehaztapenez eta objektiboki egiaztagarriak. Akats honek garrantzia handiagoa du publikotasunik gabeko prozedura bidez izapidetutako 2 espedienteetan, eskusibotasunezkoa izateagatik publikotasun eta lehiarik izan ez duena (57, 73, 74, 75, 76, 79, 81, 82, 85, 86, 92, 93, 98, 99 espedienteak).
- Guztira 6,8 milioi euroren zenbatekoan esleitutako hornidurako 4 espedientetan eta zerbitzuko espediente leian, lehiatzaileei egindako esleipenaren jakinarazpenak ez du barne hartzen hautatutako proposamenaren ezaugarrien eta abantailen justifikazioa, gainerako lehiatzaileen proposamenekiko erabakigarri direnak eta ezinbestekoak errekurtsoa aurkezteko aukera bermatzeko (SPKLTBren 151.4 artikulua) (77, 78, 79, 80, 85, 86, 96. espedienteak).
- Oftalmologiarako materiala hornitzeko espedienteetan, 1,1 milioi euroan esleitutakoan, esleipendunak instalatutako ekipoei atxikitako material suntsikorra erosteko esleipen zuzena justifikatzen da, ekipoekiko bateragarritasun eskusiboa dela-eta; ordea, ez da behar hainbat egiaztatu eskusibotasun hori (SPKLTBren 170 artikulua) (71. espedienteak).
- 2015ean historia klinikoak digitalizatzeko 2 espediente izapidetu dira eskusibotasunagatik prozedura negoziatua baliatuta; espediente horiek hasiera batean, hurrenez hurren, 133.311 eta 177.240 euroan esleitu ziren eta bigarrenak 147.592 euroren aldaketa bat izan zuen. Baliatu den prozedura justifikatu da Donostialdea 2 Zerbitzu Erakunde



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Integratuaren esterilizazio prozesua zentralizatzeko lanarekin lotutako zerbitzuak birkokatzeak eragindako edo lotutako prestazio berri modura eta kontzeptu horrexekin 2014an prozedura ireki bidez izapidetu zen espediente baten esleipendun berari esleitu zaio, non lehiatzaile bakar batek betetzen zituen eskatutako gutxieneko atalase teknikoak.

Bestetik, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako kontrol txostenak aztertzean ikusi da aztertutako 80,8 milioi eurotatik 8,6 milioi eurotan zatikapena egin dela produktu homogeneoak erostean, eskaintzarik eskatu gabe, hau da aztertutakoen % 10,6an (Ikus A.4).

Orobat, 18 zerbitzu erakundetean guztira 3,1 milioi euroren zenbatekoan kontratu txiki modura izapidetutako inbertsioetan ikusi da zatikatu egin dela kontratazioaren xedea 4 zentrok gauzatutako erosketetan, 304.566 euroren zenbatekoan, eta horrek urratu egiten ditu legez kontratatzeko ezarritako prozedurak. Guztizkotik % 32 “Erabilera klinikoa duten eraikin eta eraikuntzak” kontuan da (Ikus A.4).

### III.1.3 BESTE BATZUK

Aintzat harturik uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 3. xedapen gehigarria aldarazten duen abenduaren 3ko 31/2014 Legeak eskatutakoa, merkataritzako eragiketetan berandutzaren aurkako borroka-neurriak ezartzen dituen, eta uztailaren 26ko 11/2013 legeak erabakitakoa, ekintzaileari laguntza emateko neurriei eta hazkuntza eta enpleguaren sorrera bultzatzeko neurriei buruzkoa, 2015eko urtean hornitzaileei ordaindutako 800 milioi euroren zenbatekoak 9 egunean gainditu du batez beste legeak finkatzen duen 30 eguneko epea. 2015eko abenduaren 31n ordaintzeko dagoen 102 milioi euroren zenbatekoari dagokionez, batez beste 13 egunean gainditu du aurrez aipatutako legezko epea.

## III.2 OSATEK, SA

### III.2.1 LANGILERIA GASTUAK

#### Ordainsariak

- Produktibitate-osagarriaren kontzeptuak 2015ean 3,1 milioi euroren gastua eragin du, hau da, soldata eta ordainsarien zenbatekoaren % 32. Erradiologoei dagokienez, 1.599ko kopurua gainditzen duten miaketa informatuetatik gora osagarria jasotzen dute, kopuru hori litzatekeelarik oinarrizko soldatan jasotakoaren pare. 2015ean gauzatutako jardueratik ondorioztatu da miaketen batez bestekoa 2.979koa izan dela erradiologo bakoitzeko. Gainera, Lurraldeko erradiologo buru batek informatutako miaketen produktibitate-osagarriaren zenbatekoa erradiologo batena baino % 26,8 handiagoa da, horretarako arrazoi justifikagarririk ez dagoela.

Erradiologia taldeko lan txandaren gainerako kolektiboari dagokionez -laguntzaile, teknikari eta idazkariak-, produktibitate-osagarria jasotzen da txanda bakoitzeko 10 miaketatik gorako kopurua gainditzen denean; 2015ean batez bestekoa 18 miaketa izan da.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Duela urte batzuetatik hona miaketen batez bestekoa nabarmen hazi da, neurri batean erabiltzen diren ekipoen prestazio eta eraginkortasun handiagoa dutelako; hori dela eta, beharrezkoa litzateke lehen aipatutako kopuruak eguneratzea eta produktibitateagatikoz pizgarriaren kalkulua egiazko batez besteko zifretara egokitzea.

Administrazioko egiturako langilerientzat produktibitate osagarria banako helburuen betetze mailaren arabera ordaintzea erabaki zen, 2003an finkatutako zenbateko baten % 80 eta % 120 bitartekoa izanik; kopuru hori 2015era ekarrita 7.006,78 eurorena da. 2015ean langile guztiei ordaindu zaie % 120ko osagarria, bete beharreko helbururik batere finkatu gabe, eta honenbestez, ezta horien betetze mailaren balioztatze objektiborik ere egin.

- Erradiologo baten oinarrizko soldataren araberrako ordainsariak gaintitu egiten du indarrean dagoen hitzarmeneko tauletan kontzeptu honetarako finkatutakoa, Lurraldeko buru baten soldatarekin parekatuaz. Ordainsari hau, 1993an izenpetutako lan kontratua oinarri hartuta finkatu zena, eta horri dagokion eguneratzea aipatutako hitzarmeneko ordainsari tauletan xedatutakoari egokitu behar zitzaizkioken eta aldeak osagarri pertsonal iragankor eta xurgagarri bidez erregularizatu, Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 26.5 artikulua arautzen duen moduan.
- Bestetik, urteko ekoizpen osagarri kontzeptuan ordainsari aldakor modura oinarrizko soldataren % 2 ordaintzen da, erradiologoei izan ezik, eta horrek praktikan ordainsari finkoa jasotzea dakar, indarreko ordainsari tauletan finkatutakoa gaintituko lukeena.
- Osatekeko langileek eskuratzen duten “Antzinasuna” kontzeptua betetzen den seihilekoaren lehenengo egunean zorpetzen da, EAEko administrazio orokor eta erakundeen administraziorako eta Osakidetzarako zehazki aplikatzen denaz bestela, zeina bete eta hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik aurrera jasotzen den. Gainera, urteko zenbatekoa Osakidetzaren soldata tauletan –honek behar luke izan erreferentziazkoa-finkatutakoa baino % 44 eta % 55 bitartean handiagoa da.

Berebat, zenbait kontzeptuk finkatutakoak gaintitzen dituzte edo ez dira existitzen Osakidetzan, hala nola: ez absentismoagatikoz plusa, ospitale-unitateen osagarria eta gauekotasun osagarriaren ordutegia. Gomendagarria litzateke ahal den neurrian nominako kontzeptuak berdintzea eta oro har, indarreko Hitzarmenaren baldintzak.

### Aldi baterako kontratuen altak

- Egitekoak metatzeagatik egin diren aldi baterako kontratazioak (3 erradiologo, 2 teknikari manipulatzaille, idazkari bat eta administrazioko ofizial bat) sozietatean jasotako curriculumak soilik balioztatuta gauzatu dira. Kontratazio mota honetarako lan-poltsa bat osatu beharko litzateke, ezargarriak zaizkion printzipioak gordeko dituen.

Bestetik, badira 2015eko abenduaren 31n produkzioaren gora-beheren ondorioz luzatu diren aldi baterako kontratuak eta horiek desitxuratu egiten dute hasierako kontratu mota. Gainera, aldi baterako kontratuak kateatzeak harik eta lanpostua arauz betetzen



den arte lotura mugagabe ez finkoa eragin dezake, egun Sozietataren egiturazko plantillan existitzen ez dena.

### Aurrekontua eta aldaketak

- 2015eko langile gastuen aurrekontuaren zenbatekoa, 2014an bezalaxe, ez zaio Sozietatearen egiazko beharriari egokitzen eta horrek gerora aurrekontuaren aldaketa bat onartu behar izatea eragiten du, 2015ean 1,3 milioi euro egin dituenak. Langile gastuak eta aurrekontuko plantilla aurrekontuan zuzen jasotzea gomendatzen dugu, 2015ean indarrean zeuden kudeaketa gomendioetatik eratorritako egiazko beharriari egokituz.

### III.2.2 KONTRATAZIOA

- Osasun materiala hornitzeko 3 erosketetan eta laguntza teknikoa eta komunikazioen 2 zerbitzutan, hurrenez hurren, 81.893 eta 51.932 eurorenak, kontratu txiki modura izapidetu direnak, kontratuaren xedean zatikapena izan dela azaleratu da (SPKLTBren 86.2 artikulua) (Ikus A.5).
- Barrualde-Galdakaoko Unitaterako Erresonantzia Magnetikoko ekipo bat hornitzeko espedientean, 1 milioi euroan esleitutakoan, balio judizioetara meneratutako irizpideak balioztatzen dituen txostenak ez ditu ekipoko osagaiei emandako puntuazioak justifikatzen; berebat, parte hartu duten lehiatzaileei igorritako esleipenaren jakinarazpenean ere ez dira hautatutako proposamenen ezaugarri eta abantailak arrazoiatzen, gainerako lehiatzaileen proposamenekiko erabakigarriak direnak eta beharrezkoa errekurtsoa aurkezteko aukera bermatzeko (SPKLTBren 151.4 artikulua) (Ikus A.5).

### III.2.3 BESTE BATZUK

- Aintzat harturik uztailearen 5eko 15/2010 Legearen 3. xedapen gehigarria aldarazten duen abenduaren 3ko 31/2014 Legeak eskatutakoa, merkataritzako eragiketetan berandutzaren aurkako borroka-neurriak ezartzen dituenak, eta uztailearen 26ko 11/2013 legeak erabakitakoa, ekintzaileari laguntza emateko neurriak eta hazkuntza eta enpleguaren sorrera bultzatzeko neurriak buruzkoa, 2015eko urtean hornitzaileei ordaindutako 8,6 milioi euroren zenbatekoak 11 egunean gainditu du batez beste legeak finkatzen duen 30 eguneko epea. 2015eko abenduaren 31n ordaintzeko dagoen 3,6 milioi euroren zenbatekoari dagokionez, ez du aurrez aipatutako legezko epea gainditu.

**IV. URTEKO KONTUAK****IV.1 OSAKIDETZA**

EGOERAREN BALANTZEAK ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	2015	2014
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>958.178</b>	<b>963.729</b>
Ibilgetu ukiezina.....	10.058	12.346
Aplikazio informatikoak.....	10.058	12.346
Ibilgetu materiala.....	942.763	946.060
Lur-sailak eta eraikuntzak.....	745.872	738.063
Instalakuntza teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala.....	101.178	120.618
Abian dagoen ibilgetua eta aurrerakinak.....	95.713	87.379
Taldeko enpresetan eta elkartutakoetan epe luzeko inbertsioak.....	4.352	4.352
Ondare baliabideak.....	4.352	4.352
Finantza inbertsioak epe luzera.....	1.005	971
Hirugarrenei kredituak.....	1.004	970
Bestelako aktibo finantzarioak.....	1	1
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>340.898</b>	<b>312.538</b>
Izakinak.....	46.791	41.911
Botikako produktuak.....	22.568	17.748
Kontsumoko osasun materiala.....	21.624	21.480
Bestelako hornidurak.....	2.599	2.683
Merkat. zordunak eta kobratz. beste knt. b. ....	198.918	162.770
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak.....	4.356	2.498
Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak.....	185.827	149.577
Askotariko zordunak.....	1.279	970
Langileria.....	7.103	9.549
Administrazio Publikoekin beste kreditu batzuk.....	353	176
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	392	248
Bestelako aktibo finantzarioak.....	392	248
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	850	853
Eskudirua eta best. aktibo likido baliokideak.....	93.947	106.756
Diruzaintza.....	2.147	1.596
Best. aktibo likido baliokide batzuk.....	91.800	105.160
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>1.299.076</b>	<b>1.276.267</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEAK ABENDUAREN 31-N		Euroak milakotan	
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA		2015	2014
<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>993.295</b>	<b>1.001.387</b>
FUNTS PROPIOAK .....			
Funts soziala .....		18.411	18.411
Aurreko ekitaldietako ondorioak .....		26.638	26.547
Geldikina .....	26.638		26.547
Ekitaldiaren emaitza .....		86	91
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....		948.160	956.338
<b>PASIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>13.551</b>	<b>14.156</b>
Epe luzeko hornidurak .....			
Bestelako hornidurak .....	1.033		1.394
Epe luzeko zorrak .....		12.518	12.762
Bestel. finantza pasibo batzuk.....	12.518		12.762
<b>PASIBO ARRUNTA</b>		<b>292.230</b>	<b>260.724</b>
Zorrak epe laburrera .....			
Bestel. finantza pasibo batzuk.....	29.786		18.786
Merkataritz. hartzek. eta ordain. b. knt. batzuk.....			
Hornitzaileak .....	128.423		120.249
Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartutakoak .....	2.881		1.855
Askotariko hartzekodunak .....	2.834		3.637
Langileria .....	7.784		9.742
Bestelako zorrak administrazio publikoekin .....	120.280		106.213
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		242	242
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZT.</b>		<b>1.299.076</b>	<b>1.276.267</b>





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAK ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	2015	2014
ERAGIKETA JARRAITUAK .....		
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	2.558.609	2.473.229
Zerbitzu emakida .....	2.558.609	2.473.229
Hornidurak .....	(668.894)	(608.707)
Botika produktuen kontsumoa.....	(266.650)	(227.744)
Osasun materialaren kontsumoa.....	(259.375)	(242.432)
Beste hornikuntza batzuen kontsumoa .....	(21.505)	(21.217)
Kanpoko beste gastu batzuk.....	(121.057)	(117.017)
Lehengaien eta bestelako horniduren narriadura .....	(307)	(297)
Bestelako ustiaketa sarrerak .....	32.995	33.571
Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk .....	30.810	29.380
Ekitaldiaren emaitzara txertatutako ustiapeneko diru-laguntzak .....	2.185	4.191
Langileria-gastuak.....	(1.761.492)	(1.735.152)
Soldatak, lansariak eta antzekoak .....	(1.404.157)	(1.382.615)
Gizarte zamak .....	(357.335)	(352.537)
Bestelako ustiaketa gastuak .....	(160.500)	(162.220)
Kanpoko zerbitzuak.....	(153.545)	(154.561)
Tributuak.....	(460)	(502)
Merkat. eragiket.gatik galerak, narriad. eta hornig. bariatz. ....	(1.072)	(3.101)
Beste kudeaketa-gastu arrunt batzuk.....	(5.423)	(4.056)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(54.629)	(58.590)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egozte eta beste .....	54.684	58.841
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza.....	(545)	(738)
Narriadura eta galerak .....	(545)	(738)
Besterenganatzeagatik emaitzak eta bste.....	-	-
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>	<b>228</b>	<b>234</b>
Balio negoziagarri eta bestelako finantza baliabideen sarrera finan. ....	-	7
Hirugarrenetikozorreatatik finantza gastuak .....	(140)	(149)
Trukaneurri aldeak .....	(2)	(1)
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>	<b>(142)</b>	<b>(143)</b>
<b>EMAITZA ZERGA AURRETIK</b>	<b>86</b>	<b>91</b>
<b>ERAG. JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>86</b>	<b>91</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>86</b>	<b>91</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA	Euroak milakotan	
	2015	2014
<b>GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA</b>	<b>86</b>	<b>91</b>
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak .....		
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	46.506	46.006
<b>ONDARE GARBIAZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>46.506</b>	<b>46.006</b>
GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA.....		
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	(54.684)	(58.841)
<b>GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA</b>	<b>(54.684)</b>	<b>(58.841)</b>
<b>AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(8.092)</b>	<b>(12.744)</b>

ONDARE GARBIAZUZENEAN ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA, ABENDUAREN 31-N	Euroak milakotan					
	FUNTS		AURR.EKIT.	JASOT. DIRU-LAG.		
	SOZIALA	GELDIKINA	EMAITZA NEGATIBOAK	EKIT. EMAIT.	DOHAINT. ETA LEGAT.	GUZTIRA
<b>2013-KO EKIT. AZKEN SALDOA</b>	<b>18.235</b>	<b>26.507</b>	-	<b>40</b>	<b>969.173</b>	<b>1.013.955</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira .....	-	-	-	91	(12.835)	(12.744)
Akziodunekiko eragiketak						
Funts sozialera ekarpena.....	176	-	-	-	-	176
Ondare garbiaren bestel. aldatetako.....	-	40	-	(40)	-	-
<b>2014-KO EKIT. AZKEN SALDOA</b>	<b>18.411</b>	<b>26.547</b>	-	<b>91</b>	<b>956.338</b>	<b>1.001.387</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira .....	-	-	-	86	(8.178)	(8.092)
Akziodunekiko eragiketak						
Funts sozialera ekarpena.....	-	-	-	-	-	-
Ondare garbiaren bestel. aldatetako.....	-	91	-	(91)	-	-
<b>2015-EKO EKIT. AZKEN SALDOA</b>	<b>18.411</b>	<b>26.638</b>	-	<b>86</b>	<b>948.160</b>	<b>993.295</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	2015	2014
<b>USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>21.802</b>	<b>34.510</b>
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	86	91
Emaitzari doiketak .....	109	2.781
Ibilgetuaren amortizazioa.....	54.629	58.590
Narriaduragatiko balorazio-zuzenketak .....	1.379	3.397
Zuzkiduren aldaketa .....	(251)	184
Diru-laguntzen egoketa.....	(56.335)	(60.271)
Baja eta besterenganatzeengatiko emaitzak.....	545	738
Finantza sarrerak .....	-	(7)
Finantza gastuak.....	140	149
Trukaneurri aldeak.....	2	1
Bestelako sarrerak/gastuak.....	-	-
Kapital arruntean aldaketak .....	(21.997)	31.638
Izakinak .....	(5.188)	(2.904)
Zord. eta kobratz. beste kontu batzuk .....	(44.441)	27.501
Beste aktibo arrunt batzuk .....	(31)	305
Hartzekod. eta ordaintz. beste kontu batz .....	20.506	6.377
Beste pasibo arrunt batzuk .....	7.267	1.029
Arruntak ez diren beste pasibo batzuk.....	(110)	(670)
Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk.....	-	-
Interesen ordainketak .....	-	-
Interesen kobrantzak .....	-	-
<b>INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>(44.342)</b>	<b>(41.086)</b>
Inbertsioengatiko ordainketak.....	(45.906)	(42.711)
Ibilgetu ukiezina/materiala .....	(44.204)	(41.165)
Bestelako aktibo finantzarioak .....	(1.702)	(1.546)
Desinbertsioengatiko kobrantzak .....	1.564	1.625
Bestelako aktibo finantzarioak .....	1.564	1.625
<b>FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>53.338</b>	<b>42.173</b>
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	53.721	42.556
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak .....	53.721	42.556
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak.....	(383)	(383)
Beste zor batzuen itzulera eta amortizazioa .....	(383)	(383)
<b>TRUKE TIPOEN BARIAZIOEN ONDORIOA</b>	<b>(2)</b>	<b>(1)</b>
<b>ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA</b>	<b>(12.809)</b>	<b>35.596</b>
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	106.756	71.160
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran .....	93.947	106.756



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

KAPITAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2015-EKO ABENDUAREN 31-N (\*)

Euroak milakotan

INBERTSIOAK/FINANTZAKETA	AURREKONTUA				ALDEA	%
	HASIER.	ALDAK.	EGUNGOA	GAUZATUA		
Ustiaketa jardueren eskudir. fluxu negatiboak.....	-	-	-	20.298	(20.298)	% 100
Inb. ukiezin, material, onib. eta besteen igoera .....	47.577	11.008	58.585	49.588	8.997	(% 15,4)
Ibilgetu ukiezina .....	2.653	-	2.653	2.764	(111)	% 4,2
Ibilgetu materiala.....	44.924	11.008	55.932	46.824	9.108	(% 16,3)
Finant. inber. igoera eta ondare baliab. jaits.....	3.475	-	3.475	1.702	1.773	(% 51)
Finan. pasibo baliab. jaitsiera (itzulketa eta amort.).....	-	-	-	2.248	(2.248)	% 100
Truke tipoen bariazioen ondorioa.....	-	-	-	2	(2)	% 100
<b>INBERTSIOAK GUZTIRA</b>	<b>51.052</b>	<b>11.008</b>	<b>62.060</b>	<b>73.838</b>	<b>(11.778)</b>	<b>% 19</b>
Transf., diru-lag., dohaint. eta jasot. legat.....	47.577	7.808	55.385	46.506	8.879	(% 16)
Ondare baliab. igoera eta finantza inberts. jaits.....	3.475	-	3.475	1.563	1.912	(% 55)
Ondare baliabideen jaulkipena.....	-	-	-	-	-	-
Bestelako finantza inbertsioak.....	3.475	-	3.475	1.563	1.912	(% 55)
Pasibo finantz. baliabideen igoera .....	-	3.200	3.200	12.960	(9.760)	% 100
Eskudiru edo baliokideen murrizketa garbia .....	-	-	-	12.809	(12.809)	% 100
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>	<b>51.052</b>	<b>11.008</b>	<b>62.060</b>	<b>73.838</b>	<b>(11.778)</b>	<b>% 19</b>

USTIAPEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2015-EKO ABENDUAREN 31-N (\*)

Euroak milakotan

GASTUAK / SARRERAK	AURREKONTUA				ALDEA	%
	HASIER.	ALDAK.	EGUNGOA	GAUZATUA		
Langileria-gastuak .....	1.751.014	12.417	1.763.431	1.761.492	1.939	(% 0,1)
Soldatak, lansariak eta antzekoak .....	1.403.410	10.857	1.414.267	1.404.157	10.110	(% 0,7)
Gizarte zamak eta beste .....	347.604	1.560	349.164	357.335	(8.171)	% 2,3
Funtzionamendu gastuak.....	786.968	32.224	819.192	837.823	(18.631)	% 2,3
Hornidurak .....	620.292	44.267	664.559	683.520	(18.961)	% 2,9
Kanpoko zerbitzuak.....	166.196	(12.043)	154.153	153.545	608	(% 0,4)
Tributuak.....	480	-	480	444	36	(% 7,5)
Beste kudeaketa-gastu arrunt batzuk.....	-	-	-	314	(314)	% 100
Finantza gastuak.....	-	-	-	140	(140)	% 100
Erak. emateko diru-lag. eta egin beharreko transf.....	5.014	398	5.412	5.212	200	(% 3,7)
Ordaintz. ktu. igoera eta kobratz. knt. jaitsiera garbi ..	-	-	-	16.705	(16.705)	% 100
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>2.542.996</b>	<b>45.039</b>	<b>2.588.035</b>	<b>2.621.372</b>	<b>(33.337)</b>	<b>% 1,3</b>
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	2.513.283	45.039	2.558.322	2.558.609	(287)	-
Bestelako ustiaketa sarrerak.....	27.987	-	27.987	40.280	(12.293)	% 43,9
Transferentziak eta ustiap. diru-laguntzak .....	1.726	-	1.726	2.185	(459)	% 26,6
Ordaintz. ktu. igoera eta kobratz. knt. jaitsiera garbi..	-	-	-	20.298	(20.298)	% 100
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>2.542.996</b>	<b>45.039</b>	<b>2.588.035</b>	<b>2.621.372</b>	<b>(33.337)</b>	<b>% 1,3</b>

(\*) Honekin baterako kapital aurrekontuaren aurkezpenak Ekonomia Kontrolerako Bulegoak 7/2014 Zirkularren II. Eranskinean ezarritako eredia baliatu du. Gauzatutako kopurua Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailaren G67 aplikaziotik eskuratzen da, onartutako urteko Kontuez bestelako kontuen multzokatzeak egiten dituen.

ETORKIZUNEN KOMPROMISOEN EGITARITZA 2015-EKO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	GUZTIRA	2016	2017	2018	GAINERAKOA
<b>EGUNGO AURREKONTUA</b>	<b>85.111</b>	<b>55.926</b>	<b>29.185</b>	-	-
Hitzartutakoa.....	42.181	33.850	8.331	-	-
Ordaintzeko.....	42.930	22.076	20.854	-	-



## IV.2 OSATEK, SA

### EGOERAREN BALANTZEAK ABENDUAREN 31-N Euroak milakotan

AKTIBOA	2015	2014
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>7.037</b>	<b>6.665</b>
Ibilgetu ukiezina.....	22	-
Aplikazio informatikoak.....	22	-
Ibilgetu materiala.....	7.009	6.665
Eraikuntzak.....	801	821
Instalak. teknikoak, makineria, tresneria, ibilg. eta best. ibilg. materiala	6.208	5.394
Abian dagoen ibilgetua eta aurrerakinak.....	-	450
Finantza inbertsioak epe luzera.....	6	-
Hirugarrenei kredituak.....	6	-
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>9.221</b>	<b>7.301</b>
Izakinak.....	57	57
Lehengaiak eta bestelako hornidurak.....	-	-
Hornitzaileei aurrerakinak.....	57	57
Merkat. zordunak eta kobratz. beste knt. b. ....	4.921	2.649
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak.....	14	12
Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak.....	4.890	2.631
Langileria.....	17	4
Administrazio Publikoekin beste kreditu batzuk.....	-	2
Aldizkakatzeak epe laburrera.....	1.323	2.012
Eskudirua eta best. aktibo likido baliokideak.....	2.920	2.583
Diruzaintza.....	2.920	2.583
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>16.258</b>	<b>13.966</b>

### EGOERAREN BALANTZEAK ABENDUAREN 31-N

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2015	2014
<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>10.157</b>	<b>10.330</b>
Berezko funtsak.....	8.782	8.779
Kapitala.....	3.123	3.123
Eskrituran jasotako kapitala.....	3.123	3.123
Erreserbak.....	5.656	6.251
Legezko eta estatutarioak.....	672	672
Beste erretserba batzuk.....	4.984	5.579
Ekitaldiaren emaitza.....	3	(595)
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	1.375	1.551
<b>PASIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>535</b>	<b>603</b>
Gerorat. zergarengatiko pasiboak.....	535	603
<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>5.566</b>	<b>3.033</b>
Epe laburreko zorra.....	1.661	40
Bestel. finantza pasibo batzuk.....	1.661	40
Merkataritz. hartzek. eta ordain. b. knt. batzuk.....	3.905	2.993
Hornitzaileak.....	108	107
Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartutakoak.....	899	682
Askotariko hartzekodunak.....	991	846
Langileria (ordaintzeko dauden ordainsariak).....	579	515
Zerga arruntak erag. pasiboak.....	10	10
Bestelako zorrak administrazio publikoekin.....	503	446
Bezeroei aurrerakinak.....	815	387
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZT.</b>	<b>16.258</b>	<b>13.966</b>



## GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	2015	2014
<b>ERAGIKETA JARRAITUAK</b>		
Negoio zifraren zenbateko garbia.....	23.201	20.731
Zerbitzu ematea.....	23.201	20.731
Hornidurak .....	(662)	(724)
Lehengaien eta bestelako material ahikorren kontsumoa .....	(662)	(724)
Bestelako ustiaketa sarrerak.....	96	46
Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk .....	96	26
Ekitaldiaren emaitzara txertatutako ustiaketako diru-laguntzak.....	-	20
Langileria-gastuak .....	(11.885)	(11.017)
Soldatak, lansariak eta antzekoak .....	(9.926)	(9.151)
Gizarte zamak .....	(1.959)	(1.866)
Bestelako ustiaketa gastuak .....	(9.568)	(8.368)
Kanpoko zerbitzuak eta kudeaketa arrunteko best. gtu. ....	(9.468)	(8.352)
Tributuak.....	(17)	(15)
Merkat. eragiket.gatik galerak, narriad. eta hornig. bariatz .....	(83)	(1)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(1.435)	(1.432)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea eta beste .....	244	117
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza .....	-	-
Besterenganatzeagatik emaitzak eta bste.....	-	-
Beste emaitza batzuk.....	17	45
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>	<b>8</b>	<b>(602)</b>
Finantza sarrerak.....	-	7
Balio negoziagarri eta bestelako finantza baliabideena.....	-	7
Finantza gastuak.....	(5)	-
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>	<b>(5)</b>	<b>7</b>
<b>EMAITZA ZERGA AURRETIK</b>	<b>3</b>	<b>(595)</b>
<b>ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>3</b>	<b>(595)</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>3</b>	<b>(595)</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

	Euroak milakotan	
	2015	2014
<b>ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA ABENDUAREN 31-N</b>		
<b>GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA</b>	<b>3</b>	<b>(595)</b>
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	-	1.360
Zerga ondorioa .....	-	(381)
<b>ONDARE GARBIAK ZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>-</b>	<b>979</b>
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....	(244)	(117)
Zerga ondorioa .....	68	33
<b>GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA</b>	<b>(176)</b>	<b>(84)</b>
<b>AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(173)</b>	<b>300</b>

ESKRITURAN JASOTAKO	Euroak milakotan					
			AURREKO	JASOT. DIRU-LAG.,		
	KAPITALA	ERRETSERB.	EKITALD. EMAITZAK	EKITALD. EMAITZA	DOHAINT.ETA LEGATUAK	GUZTIRA
<b>2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA</b>	<b>3.123</b>	<b>6.183</b>	<b>-</b>	<b>68</b>	<b>656</b>	<b>10.030</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira .....	-	-	-	(595)	895	300
Ondare garbiaren bestel. aldaketak.....	-	68	-	(68)	-	-
<b>2014-KO URTEKO AZKEN SALDOA</b>	<b>3.123</b>	<b>6.251</b>	<b>-</b>	<b>(595)</b>	<b>1.551</b>	<b>10.330</b>
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira .....	-	-	-	3	(176)	(173)
Ondare garbiaren bestel. aldaketak.....	-	(595)	-	595	-	-
<b>2015-EKO URTEKO AZKEN SALDOA</b>	<b>3.123</b>	<b>5.656</b>	<b>-</b>	<b>3</b>	<b>1.375</b>	<b>10.157</b>



ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	2015	2014
<b>USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>21.802</b>	<b>34.510</b>
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	86	91
Emaitzari doiketak .....	109	2.781
Ibilgetuaren amortizazioa.....	54.629	58.590
Narriaduragatiko balorazio-zuzenketak .....	1.379	3.397
Zuzkiduren aldaketa .....	(251)	184
Diru-laguntzen egoketa.....	(56.335)	(60.271)
Baja eta besterenganatzeengatiko emaitzak.....	545	738
Finantza sarrerak .....	-	(7)
Finantza gastuak.....	140	149
Trukaneurri aldeak.....	2	1
Bestelako sarrerak/gastuak.....	-	-
Kapital arruntean aldaketak .....	(21.997)	31.638
Izakinak .....	(5.188)	(2.904)
Zord. eta kobratz. beste kontu batzuk .....	(44.441)	27.501
Beste aktibo arrunt batzuk .....	(31)	305
Hartzekod. eta ordaintz. beste kontu batz .....	20.506	6.377
Beste pasibo arrunt batzuk .....	7.267	1.029
Arruntak ez diren beste pasibo batzuk.....	(110)	(670)
Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk.....	-	-
Interesen ordainketak .....	-	-
Interesen kobrantzak .....	-	-
<b>INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>(44.342)</b>	<b>(41.086)</b>
Inbertsioengatiko ordainketak.....	(45.906)	(42.711)
Ibilgetu ukiezina/materiala .....	(44.204)	(41.165)
Bestelako aktibo finantzarioak .....	(1.702)	(1.546)
Desinbertsioengatiko kobrantzak .....	1.564	1.625
Bestelako aktibo finantzarioak .....	1.564	1.625
<b>FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK</b>	<b>53.338</b>	<b>42.173</b>
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	53.721	42.556
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak .....	53.721	42.556
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak.....	(383)	(383)
Beste zor batzuen itzulera eta amortizazioa .....	(383)	(383)
<b>TRUKE TIPOEN BARIAZIOEN ONDORIOA</b>	<b>(2)</b>	<b>(1)</b>
<b>ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA</b>	<b>(12.809)</b>	<b>35.596</b>
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	106.756	71.160
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran .....	93.947	106.756





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

KAPITAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2015-EKO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	AURREKONTUA			GAUZATUA	ALDEA	%
	HASIER.	ALDAK.	EGUNGOA			
INBERTSIOAK						
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIR. FLUXU NEGAT.	-	-	-	-	-	-
INB. UKIEZIN, MATERIAL, ONIB. ETA BESTEEN IGOERA	1.802	-	1.802	1.802	-	% 100
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA GARBIA....	-	-	-	337	(337)	-
INBERTSIOAK GUZTIRA	1.802	-	1.802	2.139	(337)	% 119
FINANTZAKETA						
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIR. FLUXU POSITIBOAK	1.802	-	1.802	2.139	(337)	% 119
TRANSF., DIRU-LAG., DOHANT. ETA JASOT. LEGAT.	-	-	-	-	-	-
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN MURRIZKETA GARBIA	-	-	-	-	-	-
FINANTZAKETA GUZTIRA	1.802	-	1.802	2.139	(337)	% 119

USTIAPEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2015-EKO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	AURREKONTUA			GAUZATUA	ALDEA	%
	HASIER.	ALDAK.	EGUNGOA			
GASTUAK						
LANGILERIA GASTUAK	10.594	1.325	11.919	11.885	34	% 100
Soldatak, lansariak eta antzekoak.....	8.840	1.108	9.948	9.926	22	% 100
Gizarte zamak eta beste.....	1.754	217	1.971	1.959	12	% 99
FUNTZIONAMENDU GASTUAK	10.072	(677)	9.395	10.230	(835)	% 109
Hornidurak.....	20	-	20	662	(642)	% 3.310
Kanpoko zerbitzuak.....	10.037	(677)	9.360	9.468	(108)	% 101
Tributuak.....	15	-	15	17	(2)	% 113
Beste kudeaketa-gastu arrunt batzuk.....	-	-	-	83	(83)	-
FINANTZA GASTUAK	-	-	-	5	(5)	-
KOBR. KTU. IGOERA ETA ORDAIN. KNT. JAITS. GARBI	-	-	-	-	-	-
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIR. FLUXU POSITIBOAK	1.802	-	1.802	2.139	(337)	% 119
GASTUAK GUZTIRA	22.468	648	23.116	24.259	(1.143)	% 105
SARRERAK						
NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA	22.458	648	23.106	23.201	(95)	% 100
BESTELAKO USTIAKETA SARRERAK	-	-	-	113	(113)	-
TRANSFERENTZIAK ETA USTIAP. DIRU-LAGUNTZAK	-	-	-	-	-	-
SARRERA FINANTZARIOAK	10	-	10	-	10	-
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIR. FLUXU NEGAT.	-	-	-	945	(945)	-
SARRERAK GUZTIRA	22.468	648	23.116	24.259	(1.143)	% 105

ETORKIZUNNEKO KONPROMISOEN EGIKARITZA 2015-EKO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	GUZTIRA	2016	2017	2018	GAINER.
Egikaritzeko konprom. zenbat. ....	-	-	-	-	-





## **ALEGAZIOAK, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN 2015EKO EKITALDIKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI EGINDAKOAK**

### **I.- SARRERA**

Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren eta OSATEK SA sozietatearen 2015. urteko fiskalizazioaren emaitzei erantzuteko, erreferentziatzeko gaiaren inguruan erakunde horiek egin nahi izan dituzten eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoan zentralizatu diren alegazioak eta justifikazioak aurkezten dira txosten honetan.

### **II. IRITZIA**

#### **II.1 OSAKIDETZA**

##### **II.1.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

###### **Kontratazioa**

1. Osakidetzako zerbitzu erakundeek kontratu txiki gisa izapidetu dute zenbait produkturen erosketa edo ondasun higigarriren hornidura, kontratuaren objektua zatikatuz. Era horretan, ez dituzte bete publizitatearen eta lehiaren printzipioak (SPKLTBren 86. artikulua). Hori da Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Kontrol-txostenetatik ondoriozta daitekeena, aplikatu beharreko legedira kontratu mota horiek egokitzeko beharrari dagokionez. Sendagaien hornidurari dagokionez, gabezia hori 10,3 milioi euroko erosketetan hauteman da, aztertu egin diren 22,4 milioi euroei dagokionez; % 46 osatzen du horrek. Gainerako hornidurei dagokionez, produktu homogeneoen 65,5 milioi euroko erosketa zatikatu da, aztertu diren 80,8 milioi euroei dagokionez, hau da, erosketen % 81,1 (ikus A.4).

### **ALEGAZIOA**

Geroago aipatutako A.4 - Kontratu txikiak atalean ageri da alegazioa.

2. Hainbat zentrotarako bi OTA aparatuen (64 ebakidura) hornidura-espeditentean Zerbitzu Nagusiek izapidetu eta milioi bat euroren truke esleitu zuten hori ez da aipatzen premiazko prozedura bat denik, eta beraz, ez da arrazoitzen publizitaterik gabe negoziatutako prozedura. Kasu horretan, bestela, publizitatea eta lehia askea salbuetsiko lirateke, eta aplikatzeko kasuen interpretazio murriztailea egin beharko litzateke, kontratazio publikoaren oinarritzko printzipioen salbuespena lirateke eta (SPKLTBren 170.e artikulua) (61. espeditentea).

## ALEGAZIOA

SPKLTBren 170. artikulua xedatzen du prozedura negoziatu bidez eslehi daitezkeela kasu hauetan:

e) Baldin eta kontratazio-organoak ezin aurreikusi dituen eta berari egotzi ezin zaizkion gertaerek eragindako premiazko larrialdi batek eskatzen badu kontratua lehenbailehen betetzea, 112. artikulua arautzen duen presazko tramitazioa aplikatuz lortu ezin delako.

Aginduaren hitzetatik argi eta garbi ondoriozta daiteke negoziatutako prozedura aplikatu ahal izateko jarraian zerrendatzen diren baldintza guztiak eta bakoitza bete behar direla egoera zehatz bakoitzean, metatze-efektua baitute horiek:

- Kontratazio-organoak ezin aurreikusi dezakeen gertaera batetik sortutako beharra.
- Kontratazio-organoari egotzi ezinezkoa.
- Presazko prozeduraren bitartez lortu ezinezkoa.

Kontratazio-organoak aurreikusi ezin dituen eta horri egotzi ezin zaizkion gertaerek eragindako premiazko larrialdiak honen ondorio izan daitezke:

- horiek konpontzeko saiakera egin arren, une zehatz eta kritiko batean funtzionamendu zuzena oztopatu duten matxurak.
- inolaz ere erabilerarik gabe ezin gera daitezkeen ekipamenduak.
- administrazioaren planifikazio edo programazio faltaren ondorioz sortu ez diren egoerak.

Premia handiko prozeduraren bitartez egindako izapidetzeak legeak ezarritako baldintza guztiak betetzen ditu, eta beraz, lehiaren printzipioak bermatzen dira hornidura mota horretan parte har dezaketen enpresa guztiei luzatutako gonbidapenaren bidez.

### **III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO OHARTARAZPENAK**

#### **III.1 OSAKIDETZA**

##### **III.1.1 LANGILERIA-GASTUAK**

- *50 langile finko edo bitartekoren eta 8 behin behineko langileren izendapenetan ez dago erabilitako prozeduraren dokumentuzko oinarririk.*

## ALEGAZIOA

Puntu honetan, aurreko urteetako fiskalizazio-txostenei egindako alegazioak berresten ditugu. Laburpen modura, honako alderdi hauek dituzte ardatz:

- Osakidetzan, lan-eskaintza publikoen eta dagozkien deialdi publikoen bidez hornitzen dira behin betiko lanpostuak, eta zehatz-mehatz betetzen dira publizitate-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak.
- Behin-behineko lanpostuak betetzeko, aldiz, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak mugikortasunari, zerbitzu-eginkizunei, barne-igoerei eta behin-behineko kontratazioari



buruz onartutako erabakien arabera jokatzeko da (Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren Akordioak: 2011ko maiatzaren 9koa –kontratazioa– eta 2015eko uztailaren 10ekoa –mugikortasuna–).

- Edonola ere, hautaketa-prozesuetan lanpostu bakoitzarentzako beharrezkoak ziren titulazioa eta bestelako eskakizunak bete dira.
- Osakidetzan martxan ipini diren langileria arloko prozedurek baliabide elektronikoak gero eta gehiago erabiltzea ekarri dute (eskaintza telematikoak, ...).

- *13 espedientetan zerbitzu eginkizunetarako ezarritako 2 urteko epemuga gainditu da; eta 35 espedientetan, maila jasoagoko egitekoetarako finkatutako urtebeteko epea.*

## ALEGAZIOA

Horren harira, gogora ekarri behar dugu zein den aldi baterako eta bitarteko izendapenen iraupenaren arrazoia, bai eta zerbitzu-eginkizunena, aldi-baterako barne-igoerena eta abarrena ere: zerbitzu-erakundeetan sortzen diren beharrei erantzutea, eskariari egokitzen zaion kalitateko osasun-arreta bat emateko. Horrenbestez, zerbitzu horiek ematen jarraitzeko beharrezko iraunaldia izaten dute, horretarako ezartzen diren lanpostuak araudiaren arabera betetzen diren arte, guztia indarreko legedia betez.

Edonola ere, eta zerbitzu-eginkizunen iraupenari buruzko oharrari erantzunez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari aurreko txosten batean esandakoa berretsi nahi dugu: osasun-zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoaren abenduaren 16ko 55/2003 Legeak (Osakidetzako estatutupeko langileei zuzenean aplikatu behar zaien araudiak, alegia) zerbitzu-eginkizunak arautzen ditu 39. artikuluan, inolako epe-mugarik ezarri gabe. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea araudi osagarria izango litzateke berariazko araudiak xedatzen ez dituen puntuetan, eta kasu honetan ez da horrelakorik gertatzen.

Horretaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioek Osakidetzan zerbitzuak emateko zerbitzu-eginkizunak egiten direnean, administrazio publikoen arteko lankidetzaren esparruan egin dira. Horretarako, euskal herri-administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko urriaren 13ko 190/2004 Dekretuak 51.1 eta 51.3 artikuluetan espresuki xedatzen duena bete da, eta kasu horiek bi urteko epe-muga luzagarriarekin baimendu dira.

Laburbilduz, araudiak epe-mugak ezartzen dituenean, muga horiek zorrotz bete dira.

Bestalde, kontuan hartu behar da aldi baterako beteta dauden zerbitzu-eginkizunetako lanpostuak bere garaian deialdi baten xede izan direla lekualdatze-lehiaketa bidezko mugikortasun-prozesuetan edo, kasua bada, EPE bidezkoetan, erregelamenduaren arabera hornitzeko, izaera finkoarekin.

- *Behin-behineko langileen 8 izendapenetan edo horien luzapenetan, egin beharreko zerbitzuen eta horien izaeraren identifikazioa falta da eta ez da justifikatzen osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen Estatutu Markoaren abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 9.3 artikuluan eta Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen 26.5 artikuluan jasotako egoerei dagozkienik.*

## ALEGAZIOA

Behin behineko langileen izendapenak osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen Estatutu Markoaren abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 9.3 artikuluan adierazitakoaren arabera formalizatzen dira. Zera xedatzen da bertan:

3. Behin-behineko izendapena kasu hauetan egingo da:

- a) Aldi baterako, egoeraren araberrako edo ohiz kanpoko zerbitzu jakinak egin behar direnean.
- b) Osasun-zentroen etengabeko funtzionamendu jarraitua bermatzeko beharrezkoa denean.
- c) Ohiko lanaldi bat murriztean zerbitzu osagarriak egin behar direnean.

3.c puntuari dagozkion izendapenak behar bezala zehaztu dira sisteman, eta egiturazko plantillako lanpostuaren kargura mekanizatu dira, lanaldia osatuz. Beste kasu batzuetan, arrazoiak modu orokorrean adierazten da; hala ere, une honetan Giza Baliabideen Zuzendaritza lanean ari da behin behineko izendapenen kausak identifikatzeko eta definitzeko, baita aipatutako artikuluan modu orokorrean jasotzen diren kausetan sar daitezkeenak ere. Modu horretan, kudeaketa-sisteman berariaz identifikatuko dira behin behineko izendapenen arrazoiak, eta bat etorriko dira, nahitaez, kausa horiekin.

- *Badira aldi baterako osagarriari buruzko berariazko araudiak (guardia medikoak, maila altuagoko egitekoak, txandakotasuna, gauekotasuna, jai-egunak, kokalekua, autokontzertazioa, eta abar). Hala eta guztiz ere, ez dira beti betetzen, gehienbat benetan eman diren zerbitzuak egiaztatzeko dokumentazioa falta baita eta organo eskudunek ez baitituzte onartzen.*

## ALEGAZIOA

Benetan egindako zerbitzuak dokumentuekin justifikatu ez direlako eta organo eskudunek onartu ez dituztelako ez-betetzeak izan direla esaten den lansari-kontzeptu horiei dagokienez, azaldu behar da jarduera karteldegian edo txanda-planifikatzailean adierazten dela, karteldegi hori Giza Baliabideak Kudeatzeko Sisteman integratuta dagoela, eta bertan egiten dela denboren kudeaketa.

Karteldegi horretan, alde batetik, jardueraren datu teorikoa jasotzen da hau da, programatuta dagoena, eta, bestetik, karteldegi erreal deritzon, benetan gauzatutako jarduera eta gainerako gertakariak (absentziak eta presentziak) jasotzen dira, nominan



eragiten dutenak. Pentsatzekoa denez, zentro bakoitzak kudeatzen ditu karteldegietako aldaketak, jarduteko prozeduren eta barne-protokoloen barruan. Horrela, benetan egindako jarduera beti ordaintzen da nominan.

Enpleguaren atariko proiektuaren baitan eta bertan definitu diren izapideen eta baimenen bideari jarraituz, gaur egun lanean ari gara kudeaketa-prozesu egokia zehazteko, eta horren bidez, karteldegian jasotzen den jarduera hori identifikatzeko, nominan ordain dadin. Karteldegia jarduera erreala jasotzen du, eta, beraz, irtenbide formal posibleek ez dute laguntza-zerbitzuaren kalitatea urritu behar, ez eta aipatutako kudeaketa-tresna horrek denborak kudeatzeko duen sistema ere.

Adierazitakoa alde batera utzita, beste batzuetan jakinarazi dugun bezala, berretsi egiten dugu Giza Baliabideen Zuzendaritzak hainbat prozesu zehatz burutu dituela kontrol-elementuak aintzat hartuta (Ordainsariak kudeatzeko prozesu korporatiboa -nominak eta gizarte-segurantza- ISO 9001:2008 arauaren ziurtagiria).

Prozesu horren baitan hainbat adierazle definitu dira, Osakidetza osoan zein zerbitzu-erakunde bakoitzean. Adierazle horiek Zuzendaritza Nagusiak, batzordeak eta erakunde bakoitzak aztertzen ditu. Adierazleak zerbitzu-erakundeei bidaltzen zaizkie hiru hilean behin, horiek aztertzeko, arrazoitzeko eta beharrezko diren neurriak hartzeko, adierazleak zuzentzeko eta aurrerantzean halakoak saihesteko hobekuntzak ezartzeko helburuarekin. Beraz, adierazle horien azken helburua da zerbitzu-erakunde bakoitzak egiaztatzea ordainketak ondo egiten ari direla, eta benetan egindako jardueragatik ordaintzen dela.

### **III.1.2 KONTRATAZIOA**

- *45,7 milioi euroren truke esleitutako 14 espedientetan (11 horniduretakoak eta 3 zerbitzu-takoak), esleipen-irizpideen garapena urria da azalean zein pleguetan (SPKLTBren 150. artikulua). (60, 65, 70, 77, 78, 79, 80, 81, 83, 84, 85, 88, 91. eta 99. espedienteak).*

### **ALEGAZIOA**

60, 65, 88 eta 91 espedienteetan zehaztutako balorazio-irizpideek argi eta garbi islatzen dute zer helburu zehatzen gogobetetzea puntuatu behar den. Horretarako, berariaz saihesten da enuntziatuaren lausotasuna, baita bitartekoen eta xedeen arteko nahasmena ere. Hautatutako irizpide bakoitzaren definizioak argi adierazten du zein den lortu nahi duen helburua. Ebaluazio kualitatiborako kontuan hartuko diren elementuak zehaztuta daude; azpi-irizpideak deskribatzen ditu eta bakoitzari zer puntuazio eman ahal izango zaion adierazten du. Puntuazioen progresibotasuna erabakitzen duten mekanismoak eta parametroak zein diren ezartzen du, puntuazioa iritziaren arabera izan ez dadin.

Beraz, ezaugarri teknikoak baloratzeko esleipen-irizpideen balorazio- eta haztapen-metodoak mugatzeko, horiek zehaztu eta zenbakitu behar dira erlazio zuzena izan dezaten kontratuaren objektuarekin eta epai egokia lortzen lagun dezaten, eskaintza onuragarriena hautatzeko orduan.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Nolanahi ere, kontratazio publikoaren arloan jarduerak hobetzeko asmoz, Osakidetzak denbora darama horretan lanean. Bada, gaur egun informazioa xehetasun gehiagorekin garatzen du esleipen-irizpideei eta horien haztapenari dagokienez.

- *18,6 milioi euroren truke esleitutako 14 espedientetan (7 horniduretakoak, 6 zerbitzuetakoak eta misto 1), prezioaren irizpidea puntuatzeko, 40 eta 50 punturen artean, ereduzko eskaintzari puntuak bermatzen dizkion formula bat erabiltzen da. Beraz, irizpide hori indargabetzen du eta balio-epaien bidezko irizpideen bidez baloratu beharreko ehuneko-proportzioari eragiten dio (SPKLTBren 150. artikulua). (59, 62, 65, 66, 68, 70, 86, 89, 91, 93, 99, 100. eta 103. espedienteak).*

## ALEGAZIOA

Benetako gabezia dago, eta Osakidetzak beharrezko neurriak hartu ditu hautemandako gabezia hori zuzentzeko.

- *Era berean, 1,8 milioi euroren truke esleitutako 2 hornidura-espedientetan, formulak bidegabeki egiten diete kalte prezioaren irizpidearen araberako eskaintza onuragarrienei, gehienez ere % 25eko muga jotzen baita baloratu gabekotzat. Beraz, prezioaren irizpidea indargabetzen da. (73.-76. espedienteak).*

## ALEGAZIOA

Prezioari dagokionez, eskaintzarik baxuenari punturik gehien eman beharrean eskaintza ekonomikoen media aritmetikora gehien hurbiltzen den eskaintzari punturik gehien emango liokeen balorazio eredu bat jartzeko aukera onartzen dute hainbat administratziotako zerbitzu teknikoek. Bi noranzkoetan batez bestekotik aldentu ahala puntuazioa proportzionalki igo edo jaitsiko da alderantzizko zentzuan. AKABek 8/97 txostenean adierazten du SPKLTBren 150. artikulua ez duela ezartzen baloratzeko arau zehatzik eta ostera, aipatutakoa bezalako formulak erabiltzeko aukera ematen duela pleguan berariaz jasotzen direnean.

Prezioaren irizpidearen puntuazioa zehazteko, sistema proportzional hutsak erabili behar dira, puntuazio posible guztia agortzeko beharrik gabe lizitatzailleek eskaintako gutxienekoak administrazio-klausula zehatzetako pleguetan alde aurretik finkatutako atalasea baino baxuagoak diren kasuetan. Atalase horretatik behera, eskaintzek hobekuntza ekonomiko adierazgarria ekartzen ez dutela ulertzen da, bestela, lizitatzailleak lehia-egoera «irrazional» batera bultzatu baitaitezke.

Prezioaren irizpidea arrunta da lizitazio guztietan; izan ere, «eskaintza ekonomikoki onuragarriena» kontzeptutik ezin bereizi daitekeela ulertzen da. Eta hori sistema proportzional lineal hutsaren bidez aplikatu behar da.

Valentziako Administrazio Kontrataziarako Batzorde Nagusiaren maiatzaren 21eko 1/2001 Irizpenak, lehiaketetan eskaintako prezioaren balorazio-irizpideari buruzkoak, zera





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

ondorioztatzen du: *«Edozein kasutan ere, eskaintza merkeenek ezin izango dute hain merkeak ez diren eskaintzek baino puntuazio baxuagorik jaso»*. Hala ere, jarraian onartzen denez, *«hainbat balorazio-teknika ezar daitezke, besteak beste, tartetan, indize zuzentzaileetan edo kontratazio-organoak komenigarritzat jotzen dituen beste edozein indizetan oinarritzen direnak, betiere horien emaitza lehen baldintza denean. Aurretik aipatutako guztia dela eta, Batzordeak ulertzen du puntuazio guztia emateko aukera ezin dela aplikazio unibertsalekoa izan lizitazio osoan, eta Aragoiko Kontuen Ganberak ezin duela exijitu arau hori, gutxienekoak puntuazio osoa lortuko bailuke kasu guztietan. Izan ere, kontrol-organoak bere txostenetan kritikatzeko du lizitazio motarekin bat datozen eskaintzek puntuazioa lortzeko aukera, prezioari emandako haztapena aldatzen baita»*. Ondorioz, ez da partekatzen eskaintza baxuenari gehieneko puntuazioa esleitzen zaionean funts publikoen kudeaketarako printzipio ekonomikoari aurka egiten zaiola dioen fundamentua, puntu guztiak ez baitira proportzionalki banatzen. Are gehiago, guztiz aurkakoa gerta daiteke; izan ere, eraginkortasunari ez zaio prezioaren ikuspegi zorrotzetik begiratu behar, kalitatearen eta prezioaren arteko ikuspegitik baizik. Puntu guztiak eskaintza merkeenari ematen bazaizkio, eskaintzen arteko diferentzia modu desegokian areagotzen da proportzionaltasunaren ondorioz. Beraz, sistema kutsa dezake, eta beste irizpide batzuetan lortutako puntuazioari kalte egin diezaioke.

Erabilitako neurketa-sistemaren menpe egongo da. Horrela, prezioen arteko diferentzia txikia denean, puntu-esleipenaren arteko diferentzia txikiak izango da, eta irizpide neutrala mantenduko da horren aplikazio integralean.

- *9,2 milioi euroren truke esleitutako 10 hornidura-espeditetan, balio-epaien arabera irizpideen balorazio-txostenak ez dira modu argudiatuan aurkeztu (SPKLTBren 150. eta 151.4 artikulua). (67, 68, 72, 73, 74, 75, 76, 83, 84. eta 86. espedienteak).*

## ALEGAZIOA

Benetako gabezia dago, eta Osakidetzak beharrezko neurriak hartu ditu hautemandako gabezia hori zuzentzeko. Etorkizunean kontuan hartuko du, Preskripzio Teknikoen Pleguak egitean.

- *12,7 milioi euroren truke esleitutako 12 espeditetan (11 hornidurakoak eta 1 zerbitzuetakoa), pleguek ez dute zehazten zer elementuren inguruan eta zer baldintzatan aurkez daitezkeen hobekuntzak edo aldaketak (SPKLTBren 147. artikulua). (70, 77, 78, 79, 80, 81, 82, 83, 84, 85, 87, 96 espedienteak).*
- *Unitateko prezioaren arabera esleitutako 18 espediteteren lizitazioa, eta gehienez ere 31,3 milioi euroko aurrekontuarekin, esparru-akordio gisa izapidetu beharko litzateke (SPKLTBren 9.3 eta 196.-198. artikulua). (37, 52, 59, 68, 69, 72, 73, 74, 75, 76, 77, 78, 79, 80, 84, 85, 86. eta 87. espedienteak).*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ALEGAZIOA

Benetako gabezia dago, eta aurrerantzean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 9.3 artikuluan eta 196. eta ondorengo artikuluetan ezarritakoaren arabera, espedienteek enpresaburua behartzen badute segidan unitateko prezioan hainbat ondasun ematera, baina kontratua sinatzean bukaerako zenbateko zehatza definitu gabe badago, entregak eskuratzaileren beharren menpe daudelako, esparru-akordioako arauetara moldatuko gara.

- *25,8 milioi euroren truke esleitutako 14 espedientetan (10 horniduretakoak eta 4 zerbitzuetakoak), aurreikusitako aldaketek ez dituzte betetzen, muga kuantitatiboarenak izan ezik, SPKLTBren 106. artikuluko baldintzak, ezin baitira modu argian, zehatzean, nabarian, konkretuan eta objektiboki egiaztagarrian aurreikusi. Gabezia horrek garrantzi handiagoa du OPPNetan, ez baitago publizitaterik edo lehiarik, eskusibotasuna dela eta. (57, 73, 74, 75, 76, 79, 81, 82, 85, 86, 92, 93, 98. eta 99. espedienteak).*

## ALEGAZIOA

Benetako gabezia dago, eta Osakidetzak beharrezko neurriak hartu ditu hautemandako gabezia hori zuzentzeko.

- *6,8 milioi euroren truke esleitutako 5 espedientetan (4 hornidurenak eta 1 zerbitzuena), lizitatzailerei esleipenaren berri emateko jakinarazpenean ez dira arrazoitzen hautatutako proposamenaren ezaugarriak eta abantailak, horiek gainerako lizitatzailerei dagokienez erabakigarriak diren arren eta arrazoiketa beharrezkoa den arren helegitea jartzeko aukera bermatzeko (SPKLTBren 151.4 artikulua). (77, 78, 79, 80. eta 96. espedienteak).*

## ALEGAZIOA

Hain zuzen ere, SPKLTBren 151.4 artikulua xedatzen duenez, esleipena arrazoitu egin beharko da, hautagaiei edo lizitatzailerei jakinaraziko zaie, eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Edozein kasutan, jakinarazpenean behar bezainbesteko informazioa eman beharko da, kanpoan utzitako edo baztertutako lizitatzaileri edo hautagaiari, 40. artikulua arabera, esleipen-erabakiaren aurka arrazoitutako helegite bat jartzea ahalbidetzeko.

Jakinarazpena arrazoitzearen helburua da baztertutako edo kanpoan utzitako lizitatzailerei informazio nahikoa ematea beraiek baztertzeko edo kanpoan uzteko arrazoi erabakigarriak zeintzuk izan diren azaltzeko, interesdunak aukera izan dezan argudiatutako arrazoiak aurka egiteko, dagokion helegitea jarritz.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Aztertutako kasuetan, kontratuaren esleipenaren ebazpena lizitatzailerak lortutako puntuazioa azaltzera mugatzen da, eta horiek arrazoitzeko oso orokorrean eskaintzen balorazio-txosten teknikora jotzen da. Bertan, esleipen-akordioan jasotako puntuazioak zer irizpideren eta arrazoiren arabera zehaztu diren adierazten da. Hartara, espedienteari gehitutako dokumentaziotik ezin da ondorioztatu esleipena nahikoa argudiatu ez denik. Jakinarazpena eta egintza jakinarazia bi egintza ezberdin direla adierazi behar da, lehena bigarrena eraginkorra izateko egiten da; beraz, espedienteari gehitutako dokumentaziotik, aztertutako kasuetan gertatzen den bezala, ondoriozta daiteke esleipena nahikoa arrazoitu dela. Jakinarazpena desagoki egiten bada ere, hori ez litzateke kausa nahikoa izango arrazoiketarik ez dagoela ondorioztatzeko.

Azaldutakoaren harira, esleipenaren ebazpenean zehaztu beharko da jakinarazpenarekin batera eskaintzen inguruko balorazio-txostenak bidaliko direla. Bertan azalduko dira esleipen-akordioan jasotako puntuazioen irizpideak eta arrazoiak zeintzuk diren.

Gainera, eskakizuna betetze aldera, hori zuzentzeko beharrezko diren ekintzak burutu dira. Horretarako, jakinarazpen-eredu bat idatzi da, zerbitzu-erakundeek prestatutakoa, erakundeek beraiek erabiltzeko. Balorazio-txosten osoen bidalketa aipatzen da eremuan.

- *1,1 milioi euroren truke esleitutako oftalmologia-materialaren hornidura-espedientearen, esleipendunak instalatutako ekipamenduei lotutako ondasun suntsikorrak erostekoan, esleipen zuzena justifikatzen da ekipamenduen bateragarritasun eskusiboa dela-eta, baina ez da hori akreditatzen duen egiaztagiririk aurkezten (SPKLTBren 170.e artikulua) (71. espedienteak).*

## ALEGAZIOA

Espedienteko material suntsikorra behar duten ekipamenduak Donostia Unibertsitate Ospitalearen jabetza dira, eta kontratazio-espedienteen bidez erosi dira. Aparatu horiek ez dute beste marka edo modeloetako materialekin funtzionatzen; are gehiago, ez dago material unibertsalik. Hala ere, espedienteari ez zitzaion gehitu inolako egiaztagiririk eskusibotasun hori akreditatzeko.

- *2015ean 2 espediente izapidetu dira historia klinikoaren digitalizaziorako, eskusibotasunagatik negoziatutako prozedura gisa. Horiek 133.311 eta 177.240 euroren truke esleitu dira hurrenez hurren, 133.000 eta 325.000 euroren truke exekutatu dira, eta bigarrenari 147.592 euroko aldaketa bat egin zaio. Erabilitako prozedura Donostialdeako ESI 2ren esterilizazio-lanekin lotutako zerbitzuen lekualdaketarekin erlazionatutako edo arrazoitutako prestazio berri gisa justifikatu da. Horretarako, esleipendunari espediente bat esleitu zaio, kontzeptu berarekin, 2014an prozedura ireki bidez izapidetu zena. Horren arabera, lizitatzailerak bakar batek betetzen zituen beharrezko diren gutxieneko atalase teknikoak. (94. eta 95. espedienteak).*



## ALEGAZIOA

Benetako gabezia dago, eta Osakidetzak beharrezko neurriak hartu ditu hautemandako gabezia hori zuzentzeko.

- *Bestalde, KEBek egindako Kontrol Txostenen berrikuspenean, zatikapena hauteman da produktu homogeneoen erosketan, eskaintzen eskaririk gabe. Zatikapen hori 8,6 milioi euroko erosketetan hauteman da, aztertutako 80,8 milioi euroei dagokienez; hau da, erosketen % 10,6an.*
- *Era berean, 18 zerbitzu-erakundetan kontratu txiki gisa izapidetutako inbertsioetatik 3,1 milioi euroko guztizko kostuarekin, kontratuaren objektua zatikatu dela hauteman da erakunde horien 4 zentrotan eta 304.566 euroko zenbatekoari dagokionez. Beraz, ez dira errespetatu legeak ezartzen dituen kontratazio-prozedurak. Guztizkoaren % 32 «Erabilera klinikoko eraikinak» kontuari dagokio.*

## ALEGAZIOA

Kontratu txikiei buruzko ohartarazpen hori aurrerago aipatzen den Kontratu Txikiak A.4 atalean aztertu da.

### Kontratu txikiak

- *KEBek kontratu txiki gisa izapidetutako horniduren lagin bat aztertu du administrazio-kontratazioan aplikagarri den legera egokitzeko kontrolaren inguruan egin dituen txostenetan. Laginean kontratuaren objektuaren zatikapena hauteman da, eta beraz, ez dira bete publikitatearen eta lehiaren printzipioak. Aztertutako zenbatekoak eta hautemandako ez-betetzeak hauek dira:*

KONTZEPTUA	Euroak milakotan							
	GASTUA		K.TXIKIA		AZTERTUA		EZ-BETETZEA	
	GUZTIRA	ZENBATEKOA	%	ZENBATEKOA	%	ZENBATEKOA	%	
Sendagaiak .....	266.650	22.383	% 8,4	22.383	% 100	10.399	% 46,46	
Gainerako produktuak .....	280.880	90.970	% 32,4	80.775	% 88,8	74.150	% 91,8	

- *Kontratu txiki bidez erositako sendagaiei dagokienez, bilakaera positiboa nabarmendu behar da kontratu txikien zenbatekoa murriztu izanagatik: 2012ko 72,1 milioi eurotatik 2014ko 30,1 milioi eurora pasa zen, eta 2015eko 22,4 milioira. Gainera, sendagaien kontratazio zentralizatua % 36,13 igo da 2015ean, 2014ari dagokionez, aurretik aipatu dugun bezala, eskaera zuzenak murriztu baitira.*

## ALEGAZIOA

Kontratu txiki bidez kontratatutako sendagaiei dagokienez, aipatu beharra dago aurrerapen handia ikusi dela Herri Kontuen Euskal Epaitegiak aurretik egindako kontratuen fiskalizazio-txostenetan ematen dituen aholkuen betetze-mailan. Egoera hori egiaztatze aldera, fiskalizazio-txosten honen ondorioak eta aholkuak alderatu behar dira 2010, 2011, 2012, 2013 eta 2014 ekitaldietan egindako kontratazioaren fiskalizazio-txostenekoekin.

Horren harira, aldez aurreko ohartarazpen hauek egin behar dira:

1. KEBek 22.383.000 euro aztertu ditu, KEBek berak eskaera zuzentzat jotzen dituenak. Txostenaren arabera, zenbateko horren 2.914.000 eurok babes legala dute kontratua indarrean egoteagatik. Ondorioz, legeak babesten dituen eskaerak lirateke, Osakidetzaren eta esleipendun laborategiaren artean indarrean dagoen kontratu baten bidez. Kontratu kanpoko gisa oker egotzitakoak dira, kontratua bazegoelako. Horiek ez ziren kontuan hartu behar, eta ez lirateke kontratu txiki gisa izapidetuzat jo beharko. Hori % 13 da, 22.383 euroko zenbatekoari dagokienez.

Diferentzia hori kontuan izanda, KEBek 19.469.000 eurotik abiatuta egin beharko luke azterketa (22.383-2.914); hau da, 24.000 eurotik gorako (KEBek zifra horretatik aurrerakoak jotzen baititu intzidentziazat) erosketa-maila izan duten espezialitate farmazeutikoen azterketa zenbateko txikiago batetik abiatuta egin beharko litzateke. Azken finean, KEBek ez-betetzea 10.399.000 eurokoa izan dela ondorioztatzeko oinarri hartu duen abiapuntu zifra askoz handiagoa da benetakoa baino (nahiz eta ezin daitekeen erabat zehaztu, esan liteke, proportzioan, 19.469 eurotik abiatuz gero, 9.046 euroko zifra aterako litzatekeela). I. Eranskinean 2.914.000 euroko guztizko balioa duten eskaeren zerrenda jasotzen da. Aldabide-SAPen garapen informatiko baten bidez erauzi dira horiek, kasuistika detektatu ahal izateko.

2. Espezialitate farmazeutikoko zenbatekoa 24.000tik gorakoa duten 10.399.000 euroko guztizkotik merkaturatze eskusiboko sendagaien edo biologikoak eta ez kimikoak diren sendagaien erosketari dagokio % 67,15.

Eskusibotasunak esan nahi du sendagai batek hornitzaile bakarra duela eta, beraz, sendagaiak patologia jakin bat tratatzen duen hornitzaile bakar horri eskatu zaizkiola. Halakoetan, ezinezkoa da lehia-printzipioa urratzea. Nabarmendu behar dugu halako kasuetan hornitzaile bakarra dagoela, eta sendagaiaren prezioa Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak ezartzen duela. Gogoan izan behar dugu Espainian sendagaien prezioak ez direla askeak eta aipatutako Ministerioak ezartzen dituela. Hain zuzen, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (aurrerantzean, AEMPS) sendagaiei buruzko online informazio-zentro bat (CIMA) du bere webgunean. Bertan, sendagai bakoitza komertzializatzen dituzten titularrak nor diren zehazten da eta, beraz, azalpen hauetarako hain funtsezkoa den datu hori egiazta daiteke (<http://www.aemps.gob.es/cima/fichasTecnicas.do?metodo=detalleForm>).

Bestalde, sendagaiak biologikoak eta ez kimikoak izateak konplexutasun handiagoa dakar bai sendagaiok erabiltzean bai haien jarraipena egitean, eta horrek espedientearen



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

izapidetzea baldintzatzen du. AEMPSEk berak ere sendagai horiek ordezkaezinak direla ezartzen du eta, 2009-04-24ko oharrean (II. eranskinean dago erantsita) adierazten du ezen, pazienteen osasuna babeste aldera, sendagai biologikoak ezingo direla ordeztu sendagaia emateko momentuan sendagaia agindu duen medikuak berariaz baimenik ematen ez badu. Gainera, konplexutasun tekniko hori dela-eta, sendagai biologikoak komertzializatzeko baimena EMAk, Europako osasun-agentziak, bakarrik eman dezake, eta ez agentzia nazionalak.

Sendagaiak III. eranskinean, sailkapen horren arabera sendagaien zerrenda azaltzen da eta, adibide gisa, hornitzaile bakarra duen sendagai baten egiaztagiri bat ere azaltzen da, CIMAtik aterata (Orencia da abatacept printzipio aktibo duen sendagai bakarra).

3. Txostenean aipatzen diren farmako ia guztiak ospitalean erabiltzekoak dira; hau da, konplexutasun tekniko handiko sendagaiak dira eta patologia larrietarako, patologia ezgaitzaileetarako, diagnostikatzen oso zailak diren patologietarako, asistentzia-eskaria aurrez zehaztea ezinezkoa den patologietarako dira aproposak eta pazienteentzako eta gero kontsumitzeko aproposak. Orobat, oso garestiak dira.

Zerbitzu-erakundeek egiten duten erosketen kudeaketaren helburua asistentzia-premiak berehala asetzea da. Sendagaiak funtsezko hornigaiak dira asistentzia-zerbitzuek behar bezala funtziona dezaten; ezin zaio zerbitzua emateari utzi kontratazio-espeditentea prestatu eta lizitazioa egin bitartean; izan ere, konplexutasun tekniko handiko prozedurak dira eta espezifikotasun zehatzak dituzten merkatu farmazeutikoko kanpo-elementuen eraginpean daude. Konplexutasun horri erantsi behar diogu sendagaiak, oro har, hainbat modu farmazeutiko edo galenikotan eman ohi direla (konprimituak, kapsulak, disoluzioan, injektagarriak, etab.); sendagaien dosifikazioa, eszipientea, iraungitze-data eta egonkortasuna ez dela guztietan berbera eta erabiltzeko baldintza eta modu desberdinak daudela. Bestalde, hornitzaileek hainbat baldintza logistiko eskaintzen dituzte eta hori ere aztertu behar izaten da.

Teknikariek egiten duten alde aurretiko azterketa hori guztia konplexua da eta lan handia eskatzen du eta luze jotzen du izapidetzeko. Denbora hori kontratazio-espeditentearen barruan kontatzen da, baina ez du eraginik kontratu txikiko erosketak murrizteko.

Ondorioz, kalitateko osasun-asistentzia bermatu ahal izateko, nahitaezkoa da espeditentek hasi aurretik egin beharko diren ekintzak zehaztea, kontrataziorako baldintza tekniko, ekonomiko eta logistiko egokienak zehaztu ahal izateko.

4. Atal honetan Osakidetzak sendagaien kontratazioan egiten duen ahalegin handia nabarmendu behar da. Hala, aurrekontuen egonkortasunarekin eta gastuen kontrolarekin lotutako helburuaren arabera, funts publikoen erabilera eraginkorra bermatzen da, baita erosketa integratuaren hobekuntza etengabea ere, teknikarekin eta prezioarekin zerikusia duten baldintza hoberenak lortzeko tresna gisa.

Hurrengo koadroan Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren intzidentziak laburtzen dira, baita farmaziako urteko gastuarekin duten erlazioa ere, ehunekoetan. Hala, aipatutako esfortzua ikus daiteke, kontratazioaren bilakaera positiboa baita. Nabarmendu behar da 2015. urtean zehar intzidentziak % 4 besterik ez zirela izan sendagaien guztizko gastuari dagokionez.

Urtea	Farmazia-gastua		Intzidentzia Kontrol Ekonomikoko Bulegoa	
	Euros	Ald. %	Euro	Intzidentzien %, farmazia-gastuari dagokionez
2012	215.936	10%	53.348	25%
2013	227.526	5%	38.309	17%
2014	227.618	0%	14.969	7%
2015	266.442	17%	10.399	4%

(milaka eurotan)

Aurretik aipatutako ohartarazpenak kontuan hartuz, Osakidetzak alegazio hauek egiten ditu:

1. Sendagaiak erosteko eginiko 24.000 eurotik gorako erosketen guztizko 10.399.000 euroetatik, gutxienez 2.259.000 euro (% 21,72) eskabidea egiten den egunean indarrean dagoen kontratu baten babesean dagoen kodea duten sendagaiak dagozkie. Ondorengo agiriak frogagiri gisa erabil daitezke:

IV. eranskina (sendagaien zerrenda, Aldabide-SAP esparru-kontratuaren zenbakia eta kontratuaren hasiera- eta amaiera-data).

Espedienteen eta Osakidetzak eta hornitzaileek sinatutako kontratuen agiriak eskuragarri daude Osakidetzak-Euskal Osasun Zerbitzuaren Zuzendaritza Nagusian.

2.259.000 euroen artean, Influvac (gripearen txertoa) sendagaiak sortutako 135.000 euroak aipatu behar dira bereziki. Eskaera egotzi hori (salgai-mugimendurik gabe) SAPen erregistratu behar izan zen 2014ko faktura bat kontabilizatzeko. Faktura horri dagokion eskaera esparru-kontratuaren arabera egin zen (2014ko irailaren 2ko 4505116010 zk. eskaera), baina 2015eko abendura arte ez zenez fakturazio elektronikorako plataforman jaso, Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako batek 4505638118 zenbakidun eskaera egotzia sortu behar izan zuen (salgai-mugimendurik gabe), hori kontabilizatu ahal izateko.

V. eranskineko agiriak frogagiri gisa balio dute.

2. Sendagaiak erosteko eginiko 24.000 eurotik gorako erosketen guztizko 10.399.000 euroetatik, 103.000 euro Tractocile sendagaiak sortutakoak dira (atosiban printzipio aktiboa). Sendagai horren kontratazio-prozedura geldiarazi egin behar izan zen eskaintako sendagaiak segurtasun-arazo bat zuelako. Segurtasun-arazoa konpondu eta





gero, abiarazitako espediente berria aldez aurretik bertan behera utzi behar izan zen, laborategi esleipendunak hornidurarik ez zuelako. Ondorengo agiriak frogagiri gisa erabil daitezke:

VI. eranskina: AEMPSen oharra eta kontratuaren indargabetzea, atosibanen hornidurarik ezagatik

- *Beste produktu batzuei dagokienez, hautemandako 74,1 milioi euroetatik, ez da publizitatea eta lehia errespetatu 65,5 milioi euroko erosketetan. Lehiari dagokionez, hori ez da errespetatu 8,6 milioi euroko erosketetan.*

## ALEGAZIOA

Sendagaiak ez diren gainerako produktuen kontratu txiki bidezko kontratazioari dagokionez, igorritako txostena ikusirik, komenigarria da adierazleen bilakaera mesedegarria nabarmentzea aurreko ekitaldiko kontratu txikiei dagokienez.

Hala, 2015eko ekitaldian 74.150.000 euroko ez betetze bat dago 280.880.000 euroko guztizko gastuari dagokionez, hau da, % 26,4. Ehuneko hori 2014ko ez-betetzea baino bost puntu beherago dago, erosketa txikiak % 31,42 izan baitziren guztizko gastuari dagokionez.

Kontzeptua	Ekitaldia	Gastu osoa	K. TXIKIA		ANALIZATUA		EZ-BETETZEA		Txikien % gastu osoa
			Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	
Gainontzeko produktuak	<b>2014</b>	263.649	103.235	39,16%	91.261	88,40%	82.837	90,8%	31,4%
	<b>2015</b>	280.880	90.970	32,39%	80.775	88,79%	74.150	91,8%	26,4%

Bilakaera hori lortzeko, erosketa zentralizatua sustatu da, eta zenbait erakundetan hobekuntza-planak abiatu dira. Era berean, bere unean Kontrol Ekonomikoko Bulegoari aurkeztutako alegazioetan aldarrikatu ziren plan horiek.

Hala, adibidez, erosketa zentralizatuari dagokionez, 2015ean 16 espediente esleitu dira. Horietako 14 Administrazio Kontseiluaren Akordioan lehenbiziko aldiz sartutako produktuei dagozkie. Akordio horren bidez, inbertsio estrategikoak eta ondasunen eta zerbitzuen erosketak (kontratazio zentralizatutakoak) eta erosketa integratuen programa zehazten dira.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Espedientearen xedea	Esleitutako zenbatekoa	Urteak	Urtean esleitutako zenbatekoa	Esleipen-data	Batzorde Teknikoa
A.M. PRODUCTOS DE INCONTINENCIA	2.104.965	2	1.052.483	08/05/2015	Erizaintza
GUANTES VINILO SINTETICO Y GUANTES PROT. RADIOLOGICA	651.360	1	651.360	07/04/2015	
COILS NEURORADIOLOGIA	1.851.000	2	925.500	28/01/2015	Implanteak
IMPLANTES CADERA	11.688.318	2	5.844.159	01/10/2015	
VALVULAS CARDIACAS, ANILLOS VALVULOPLASTIA	5.008.450	2	2.504.225	21/07/2015	Laborategia
CORE LABORATORIOS GIPUZKOA	16.994.233	4	4.248.558	04/02/2015	
DETERMINACIÓN DE URINALISIS Y SEDIMENTOS	1.265.430	4	316.357	25/09/2015	
DETERMINACIONES DE GASOMETRIA	1.472.168	4	368.042	10/02/2015	
DETERMINACIONES DE VELOCIDAD DE SEDIMENTACIÓN GLOBULAR (VSG)	293.397	4	73.349	30/04/2015	
ELECTROFORESIS (SPE) E INMUNOFIJACION/INMUNOTIPADO-INMUNOSUSTRACCION	1.501.044	4	375.261	21/12/2015	
SONDAS PARA LA HIBRIDACIÓN INSITU CON FLUORESCENCIA	365.890	2	182.945	06/11/2015	
CONSUMIBLES PARA IMPRESORAS	1.090.384	1	1.090.384	02/06/2015	
PRODUCTOS DE CELULOSA	984.049	1	984.049	01/12/2015	
PULSERAS IDENTIFICATIVAS	324.996	2	162.498	25/05/2015	
RADIOFARMACOS	6.640.669	4	1.660.167	17/08/2015	Beste batzorde batzuk
TAO	6.958.600	4	1.739.650	05/06/2015	
<b>GUZTIRA</b>	<b>45.595.683</b>		<b>22.178.988</b>		

Osakidetzako Zuzendaritza Nagusian, lizitazio kopurua handitzeaz gain (batzuk konplexutasun handikoak), KEAOn jarritako helegiteei aurre egiteaz gain eta katalogoaren kudeaketa hobetzeaz gain (oinarri tekniko egokien planifikazioa eta eraketa hobetzeko ezinbesteko oinarria), informazio-sistemen hobekuntzan aurrera egin da, eskaera zuzen bidez egindako erosketen benetako inaktuaren jarraipen egokia egin ahal izateko.

Hainbat neurri hartu dira. Alde batetik, Kontu-hartzaitzarekin batera lan egin da SAPen jasotako txosten desberdinak bateratzen, kontratazio txikiari eta talde homogeenontzat ezarritako mugen ez betetzeari dagokien informazioa ateratzeko, eta txostenetan hautemandako erroreak zuzentzeko, Kontu-hartzaitzak egindako Barrualde Galdakoako ESIaren Fiskalizazio-txosteneko *alegazioen azterketan* adierazten den bezala.

Bestetik, *EK indarrean duten eskaera zuzenen zerrenda* txostena diseinatu da informazioa ateratzeko erroreak zuzentzeko. Horren bidez, erakundeei jakinarazten zaie zer eskaera (espedientearen babesa eta esparru-kontratua indarrean izan arren) ez diren geratu azken horretara loturik.

Baina eragin positibo gehien izaten ari den neurria da, hain zuzen ere, eskaera horiek aurrerago EKrekin lotzeko aukera ematen duen prozesu informatikoa abian jartzea.

Prozesua 2015eko urrian inplementatu zen eta Aurrekontuen Zuzendariordetzako langileek exekutatu zuten ekitaldiko eskaera zuzenentzat, kontratu zentralizatuari eragiten zieten horientzat hain zuzen, inplanteen kasuan izan ezik. Ez zen esku hartzerik egin zentroetako espediente propioetan esleitutako material-eskaeren kasuan. 2016an hedatu zen erakundeetara, eta hori aldi-aldi exekutatzeko formulak gaitzen ari dira. Beraz, pentsatzekoa da horren aplikazioaren emaitzak adierazgarriagoak izango direla hurrengo urtean.

2015eko ekitaldian, aipatutako SAP transakzioa aplikatzen hasi zen arren, esparru-markoa indarrean zuten material-eskaera hauen zenbatekoak ezin izan dira dagokien espedientearekin lotu:



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

TALDEAK	ESPTE	Zenbatekoa BEZik gabe
DEL 20 AL 30 (BIAK BARNE)	ZENTROAK	56.840
	OSC1	31.477
	OSC1-CENT	448
<b>Guztira 20-30</b>		<b>88.765</b>
DEL 40 AL 51 (BIAK BARNE)	ZENTROAK	1.572.194
	OSC1	1.051.653
	OSC1-CENT	140.746
<b>Guztira 40-51</b>		<b>2.764.592</b>
<b>Guztira</b>		<b>2.765.040</b>

Koadroak artikulu multzoen banaketa erakusten du. EXPTE zutabeak adierazten du eskaerekin lotu beharreko esparru-kontratuak erakundeen (ZENTROAK) berezko espediente bati loturik zeuden, espediente zentralizatu bati (OSC1), edo espediente zentralizatu bati, non esparru-kontratuak zentroen bidez mekanizatu baitziren (OSC1-CENT).

*EK indarrean duten eskaera zuzenen zerrendatik* atera da datu hori, 2017ko maiatzaren 10ean. 2.765.240 zifra baxuagoa da 2014ko behin behineko txostenari egindako alegazioetan adierazten denarekin alderatuz (6.035.244 euro), aipatutako informazio-hobekuntzari esker.

Uste dugu 2,7 milioi euroko zenbatekoa kendu beharko litzatekeela erosketa txikiari dagozkion intzidentzietatik.

Azkenik, erosketa txikiko zenbatekoak murriztea zailtzen duten arrazoiak azaldu nahi ditugu jarraian.

1. Esparru-kontratuaren hasiera hori esleitu ostean. Hainbat pausu jarraitu behar dira: materialen kode berriak irekitzea edo gaur egun erabiltzen direnak aldatzea erreferentzia aldatuz, zentroetako biltegi guztietan parametrizatzea eta Info erregistroan prezioak eguneratzea eta, gainera, inplanteen kasuan, kontsignan dauden stock-ak eguneratu behar dira.

Hori da, adibidez, 4507-Teknikarekin loturiko material eta erreaktibo espezifikoak azpimultzoaren espediente askoren kasua. Laborategi-kudeaketaren esparruko espediente horietan askotan aipatzen da ekipamenduen lagapena. Horrez gain, kontratuak hainbat hilabeteko epea jasotzen du, hori formalizatzen den egunetik hasita, esleipendunak abian jar dezan instalazioa (adibidez, Gipuzkoako laborategi automatizatuan (Core) sei hilabete izan ziren). Gainera, askotan erreaktibo bidezko fakturaziotik determinazio bidezko fakturaziora aldatu behar da. Aldaketaren ondorioz, enpresak denbora behar du horretara moldatzeko, eta bitartean eskaera zuzenak egin behar izaten ditugu, aurreko kontratuak amaitu direlako.

Hurrengo taulan 2015ean esleitutako espedienteak zerrendatzen dira (horietako produktu gehienak 4507 azpimultzoan sailkatzen dira). Horien bidez, erosketa zuzenaren zenbatekoa murriztu nahi da.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Espedientea	Espedientearen xedea	Esleitutako zenbatekoa	Urteak	Urtean esleitutako zenbatekoa	Esleipen-data
G/12/20/11142/OSC1/0000/082014	CORE LABORATORIOS GIPUZKOA	16.994.233	4	4.248.558	04/02/2015
G/12/20/10623/OSC1/0000/032015	DETERMINACIÓN DE URINALISIS Y SEDIMENTOS	1.265.430	4	316.357	25/09/2015
G/12/20/10628/OSC1/0000/032014	DETERMINACIONES DE GASOMETRIA	1.472.168	4	368.042	10/02/2015
G/12/20/11615/OSC1/0000/122014	DETERMINACIONES DE VELOCIDAD DE SEDIMENTACIÓN GLOBULAR (VSG)	293.397	4	73.349	30/04/2015
G/12/20/10992/OSC1/0000/072015	ELECTROFORESIS (SPE) E INMUNOFIJACION/INMUNOTIPADO-INMUNOSUSTRACCION (IF/IT-IS)	150.1044	4	375.261	21/12/2015
G/12/20/10810/OSC1/0000/052015	SONDAS PARA LA HIBRIDACIÓN INSITU CON FLUORESCENCIA	365.890	2	182.945	06/11/2015
	<b>GUZTIRA BEZIK gabe</b>	<b>21.892.161</b>		<b>5.564.513</b>	

2. Batzuetan, kontratua amaitzen denetik hurrengo esleitzen den arteko epeak agerian uzten du zenbait artikuluren kasuan ezin dela horien erosketa luzatu.

Hori gertatzen da, noizean behin, artikulua baten erosketari izaera estrategikoa aitortzen zaionean, eta horren izapidetzea atzeratzen denean.

Adibidez, 4105- *Jostura mekanikoa* azpimultzoko zenbateko ia guztiaren kasuan. Erosketa estrategikotzat jo zen 2015ean, baina horren konplexutasuna zela-eta ezin izan zen esleitu 2016ra arte (G/113/20/1/0667/OSC1/0000/032016). Ondorioz, 2,2 milioiko zenbatekoa erosketa txiki gisa izapidetu da azkenik.

Berdin gertatzen da 4711-12 azpimultzoetako materialekin; KEBen txostenetan 2.491 milioi euroengatik balioztatzen dira. 2015eko akordioan *Bisturi harmonikoen terminalak* txostena jaso zen, bi azpimultzo horietan sailkatutako produktuekin. Espediente konplexu horrek bisturi harmoniko-hodi zigilatzaileentzako energia-sorgailuen erosketa edo lagapena jasotzen zuen. 2015ean eta 2016an ez zenez lortu preskripzio-plegu egokirik egitea, 2017an erosketa zentralizatuen zerrendatik ateratzea erabaki da.

Hori da, halaber, TAO txostenaren kasua (aho bidezko antikoagulazio-tratamendua). Espediente horri dagozkion materialak 4.516. azpimultzoan sailkatuta daude, eta KEBen txostenek 921.000 euro baino gutxiagoko erosketa-zenbatekoarengatik balioztatu dituzte.

2013ko urtarrilaren 18an, G/110/20/1/1002/OSC1/0000/052006 espedientearen baitako azken kontratua amaitu zen, WERFEN ESPAÑA SAU eta ROCHE DIAGNOSTICS SL enpresekin, luzapenerako aukerarik gabe. Data horretatik aurrera eta G/110/20/1/1111/OSC1/0000/082014 espedientea esleitu arte, hau da, 2015eko ekainaren 5era arte, eskaerak aurreko espedientearen esleipendunei egin zitzaizkien, lagatako koagulometroekiko mendekotasuna baitzegoen. Erosketa zuzenaren zatirik handiena urteko lehen 5 hilabeteetan gertatu zen. Artikulu mota horietan egindako eskaeren zenbatekoa 725.600 eurokoa izan zen (BEZik gabe).

Bestalde, edozein espedienteren izapidetzea oso konplexua eta luzea izaten da, erosketa integratuen kasuan zein zentroaren berezko erosketetan. Hainbat zerbitzu koordinatu behar izaten dira eta, batzuetan, diziplinarteko Batzorde Teknikoak, Kontratuen Legeak ezartzen dituen epeen barruan, gehienetan laburregiak diren arren.

3. Eskaera eta espedientea modu egokian batera erregistratzea oztokatzen duten arazoak, erosketa txiki gisa erregistratuz, erosketa txikia ez denean. Adierazi dugun bezala,



intzidentzia horietako batzuk aurrerago zuzendu daitezke SAP transakzio berriaren bidez, beste batzuk, ordea, ez (2015ean zuzendu gabeko zenbatekoa, aurretik adierazitakoaren arabera, 2,7 milioikoa izan zen). Hauek nabarmentzen dira:

- 3.1 Partekatutako esleipenetan, SAPEk hornitzaile finkotzat jotzen du esparru-kontratu mekanizatua duen azken hornitzailea, eta gainerako esleipendunei egiten zaizkien eskaera guztiak ez zaizkio esparru-kontratuari lotzen.
  - 3.2 Eskaeraren eskuzko mekanizazioa da beste arrazoietakoa bat, ez baitira kontratu-zenbakia eta materialaren posizioa jasotzen. Datu horiek artikularekin erlaziona daitezke eskaera modu automatizatuan egiten denean soilik.
